



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

ARRASATEko KIROLAREN PLAN ESTRATEGIKOA



1. liburukia: Analisia eta diagnosis

2017ko azaroa

Edukia

1. SARRERA	5
2. ARRASATE TESTUINGURUAN KOKATZEA	6
2.1. Kokagunea eta geografia	6
2.2. Demografia eta lurraldea	7
2.3. UEP, planak eta estrategiak, beste udal eremu batzuetan.....	11
3. ARRASATEKO KIROL SISTEMA	14
3.1. 1. aztergaia. Kirolaren antolamendua	14
3.2. 2. aztergaia. Kirola, osasuna eta hezkuntza	31
3.3. 3. aztergaia. Herritarren premiak eta herriko kirol espazioak.....	51
3.4. 4. aztergaia. Kirol ekitaldiak eta kirol turismoaren ahalmena	71
3.5. 5. aztergaia. Gizarte irisgarritasuna	74
3.6. 6. aztergaia. Kirola eta emakumea	78
3.7. 7. aztergaia. Kirola eta euskara.....	86
4. KIROL SEKTOREAREN BILAKAERA ETA ETORKIZUNeko JOERAK	89
5. DIAGNOSIA	94
1. irudia. Arrasateko biztanleriaren bilakaera (2009-2016)	7
2. irudia. Arrasateko biztanleriaren egitura demografikoa.....	7
3. irudia. Adin talde handien erkaketa, Arrasate vs. Gipuzkoa	8
4. irudia. Arrasateko auzoen banaketa	9
5. irudia. Kiroletarako aurrekontu arruntaren bilakaera (%-tan), Udalaren guztizko aurrekontu arruntarekin alderatuta.....	15
6. irudia. II. kapituluko instalazioetako gastuaren banaketa (%-tan).....	16
7. irudia. Kiroletako transferentzia arrunten banaketa (2017)	17
8. irudia. III. kapituluko diru sarrerren maila. Tasak eta prezio publikoak	18
9. irudia. Kirol zerbitzuaren finantzaketa (2017).....	19
10. irudia. Kirol sistema baten <i>stakeholderen</i> mapa.....	21
11. irudia. Arrasateko kirol eragile nagusiak	21
12. irudia. LEKen egitura	23
13. irudia. Kirol klubuen lizentzien banaketa, kategorien arabera	25
14. irudia. Arrasateko kirol zentro pribatuen zerrenda	29
15. irudia. Kirol jardunaren laburpena, Euskadin.....	32
16. irudia. Arrasaten kirolean hasteko eredia.....	32
17. irudia. 6-12 urtekoek eskolaz kanpoko eskola kirolean duten partaidetza (2016/2017)	34
18. irudia. 12-14 urte artekoek LEKen eta kirol klubetan duten partaidetza (2016/2017)	37

19. irudia. 14-17 urtekoek klubetan duten partaidetzaren bilakaera (2014/2017).....	38
20. irudia. 14-17 urtekoek klubetan duten partaidetzaren bilakaera (2014/2017).....	39
21. irudia. Espainiako haurrek egiten duten kirol jarduera fisiko antolatua, sexuaren eta adinaren arabera.....	40
22. irudia. 15 urtetik gorakoek egiten duten jardunaren indizea, Espainian zein Euskadin	42
23. irudia. Kirol zentro publiko bateko harpidedunak diren herritarren ehunekoa	43
24. irudia. Musakola kiroldegiko harpidedunen egitura.....	44
25. irudia. Musakola kiroldegiko jardueretako eta ikastaro osagarrietako partaidetza.....	45
26. irudia. Musakola kiroldegiko jarduera kopurua eta partaidetza.....	45
27. irudia. Biztanle helduek klubetan duten partaidetzaren bilakaera (2014/2017).....	46
28. irudia. Gimnasio pribatuen mapa.....	48
29. irudia. Azken urtean kirola egin duten pertsonak, ingurunearen arabera: aire zabalean edo espazio itxietan.	49
30. irudia. Kirol entrenamendurako aplikazioen erabiltzaileek <i>trackeatutako</i> running, mendi ibili eta txirrindularitza ibilbideak	50
31. irudia. Arrasateko kirol espazioen ezaugarri orokorrak.....	52
32. irudia. Arrasateko kirol instalazio nagusiak.....	54
33. irudia. Udal jabetzakoak diren kirol espazioen ezaugarri orokorrak I	55
34. irudia. Udal jabetzakoak diren kirol espazioen ezaugarri orokorrak II	55
35. irudia. Arrasateko kirol klubek kirol instalazio nagusiei ematen dieten erabilera.....	62
36. irudia. Arrasateko hurbil dauden igerileku estaliak	63
37. irudia. Arrasateko eta Aretxabaletako instalazio nagusien eragin eremua, oinez edo bizikletaz.....	64
38. irudia. Parke bio-osasungarriaren inguruan bizi diren 65 urtetik gorako biztanleak.....	65
39. irudia. Arrasateko parkeak eta bidegorri sarea.....	67
40. irudia. Arrasateko inguruko bidezidorren sarea.	69
41. irudia. Arrasateko ikastetxeak.....	71
42. irudia. Kirola egiteko oztopoak eta motibazioak.....	75
43. irudia. Gaur egun, kirol jarduera fisikotik azaleratzen diren joerak.....	90
44. irudia. Kirolaren eraldaketari buruzko gogoetak	91
45. irudia. Kirol fenomenoaren aldaketa prozesuak.....	92
46. irudia. Hiriko kirol jarduera fisikoan azaleratzen ari diren joerak.....	93
47. irudia. Diagnosiaren laburpena, aztergaiaren arabera.....	100
1. taula. Arrasateren ezaugarri geografikoen eta kokagunearen laburpena.....	6
2. taula. Arrasateko auzoen zerrenda	9
3. taula. Arrasateko barneko joan-etorrien banaketa	10
4. taula. Arrasateko plan estrategikoak eta ekintza planak.....	11
5. taula. Aurrekontuaren bilakaera, kapituluaren arabera (2015-2017).....	15
6. taula. II. kapituluaren gastua, azalpenen arabera (2015-2017)	16

7. taula. Tasengatiko eta prezio publikoengatiko diru sarreren xehetasuna.....	19
8. taula. Eskola kiroleko partaidetza, ikastetxeen arabera (2015-2016)	23
9. taula. Arrasateko kirol klubaren zerrenda.....	24
10. taula. Euskal federazioetako kirol lizentzien bilakaera (2012-2017)	26
11. taula. Arrasateko zentro pribatuaren zerrenda	28
12. taula. 6-12 urtekoek LEKen eskola kirolean duten partaidetza (2016/2017)	35
13. taula. 6-12 urtekoek klubetako kirol eskoletan duten partaidetza (2016/2017).....	36
14. taula. 12-14 urtekoentzako kirol eskaintza.	37
15. taula. 14-17 urtekoentzako kirol eskaintza, klubetan.....	39
16. taula. Musakola kiroldegiko kirol jardueren eskaintza	43
17. taula. 18 urtetik gorakoentzako kirol eskaintza, klubetan.....	47
18. taula. Kirol ekipamendu eta espazioen jabetza eta kopurua.....	52
19. taula. Kirolerako espazio moten zerrenda, jabetzaren arabera.....	53
20. taula. Musakolako kantxen erabiltzaileak diren kolektiboen tipologia	56
21. taula. Iturripeko kantxen erabiltzaileak diren kolektiboen tipologia.....	59
22. taula. Uarkapeko kantxen erabiltzaileak diren kolektiboen tipologia	60
23. taula. Arrasateko bidezidor ibilbideen zerrenda.....	68
24. taula. Arrasateko kirol ekitaldien zerrenda.....	72
25. taula. Musakolako kantxetara sartzeko prezioak.....	76
26. taula. Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten pertsonak (herritarren ‰).....	76
27. taula. Erabilgarri dagoen errenta pertsonala (€).....	76
28. taula. Zahartze indizea: 65 urteko eta hortik gorako biztanleria (%).....	77
29. taula. Kirol klubetan emakumeen lizentzien ehunekoa.....	82
30. taula. Musakola kiroldegiko sarreren erregistroa	84

1. SARRERA

Kirolaren eta jarduera fisikoaren garrantzia ezinbestekoa da herritarrek osasuntsuak izan daitezen, bizi ohitura osasungarriak izan ditzaten, eta, horrenbestez, euren bizi kalitatea hobea izan dadin. Arrasateko Udalak ezagutzen du errealitate hori, eta, horregatik, urteak daramatza udalerrian jarduera fisikoa eta kirol jarduera egitea sustatzen; izan kirol instalazioak eraikiz eta horietan mantentze lanak eginez, izan hainbat kolektiborentzat Udalaren kirol programak diseinatzuz eta gauzatuz, edo hiriko kirol eragileekin elkarlanean jardunez zein euskarria finkatuz.

Bestalde, kirolaren sektorea etengabeko eraldaketan dago. Dinamismoak, arintasunak eta joera zein jarduera berriak agertzeak dakarte sektorea erakargarria eta konplexua izatea aldi berean. Jarduera fisikoaren, kirolaren eta osasunaren merkatuko eskaintzen eta eskaeren bilakaera ikusita, Arrasateko Udalak kirolaren eta jarduera fisikoaren egoera aztertu nahi du udalerrian, eta plan estrategiko bat zehaztu, etorkizunerako. Plan estrategikoaren helburua izango da, hain zuzen, Arrasateko etorkizuneko kirola eta jarduera fisikoa definitzea, eta horietara iristeko bidea zehaztea.

Ezaugarri horietako plan bat egiteko ezinbestekoa izango da hiriko kirol sistema osatzen duten eta bertan parte hartzen duten eragile guztiek esku hartzea. Horretarako, partaidetzan oinarritutako hainbat metodologia baliatu dira, iritzia biltzeko, eztabaida puntuak topatzeko eta kirol eragileen sarearekin estrategiak zehazteko.

Jarraian, Arrasateko Kirolaren Plan Estrategikoaren lehen liburukia aurkeztuko dugu. Liburuki honek, zehazki, aztergaien analisiaren entregagaiak, kirolaren eta jarduera fisikoaren sektoreko joeren dokumentazioa eta Arrasateko kirolaren diagnosi txostena biltzen ditu. Juanma Muruak egin du, Itik Aholkularitza Etxearen lankidetzarekin, eta Projecta Urbes izan da proiektu honen talde esleipenduna.

2. ARRASATE TESTUINGURUAN KOKATZEA

Arrasate herriaren ezaugarri garrantzitsuak ezagutzea funtsezkoa da kirol sistemaren gaur egungo egoeraren analisi on bat egiteko. Jarraian zehaztuko ditugu geografiari, lurraldeari eta demografiari buruzko udalerriko hainbat datu, jarduera fisikoan eta kirolean bereziki eragina dutenak.

2.1. Kokagunea eta geografia

1. taula. Arrasateren ezaugarri geografikoen eta kokagunearen laburpena


Ezaugarri orokorrak
 Iturria: Wikipedia (2017).
Ezaugarri geografikoak
• Herria: 21.872 biztanle • Probintzia: Gipuzkoa • Eskualdea: Debagoiena • Hedadura: 34,20 km² • Altitudea: 223 m • Alboko udalerriak: Iparraldean, Bergara; hegoaldean, Aretxabaleta; ekialdean, Oñati; eta mendebaldean, Aramaio. • Hiriburuetara duen distantzia: Donostia, 78 km; Gasteiz, 39 km; Bilbo, 48 km.
Ezaugarri geografikoak
• Deba ibarrean kokatuta dago. Gune lau eta zabalen muga da. • Nabarmenezkoak dira Udaltx (1.117 m), Murumendi (778 m) eta Kurtzetxiki (532 m) mendiak. • Deba eta Aramaio ibaiak. Udalerrian bat egiten dute. Zati horretan ezin dira ur kirolak egin.
Komunikazioa eta mugikortasuna
• A1 autopista; 636 errepide nazionala; 627 eta 2620 errepide probintzialak. • Garraio publikoaren zerbitzua, autobusez.

Iturria: Geuk egina, hainbat iturri baliatuta (2017).

2.2. Demografia eta lurraldea

Arrasate herriak 21.903 biztanle ditu (2016); hortaz, Gipuzkoako seigarren herria da, biztanleria bolumenari dagokionez. Azken hamarkadan biztanleriak egonkor eutsi dio, biztanle kopuruan aldakuntza nabarmenik izan gabe, Euskadiren eta Gipuzkoaren joerari jarraituz, nahiz eta azken horretan hauteman den biztanleria pixkanaka handitzeko joera.


1. irudia. Arrasateko biztanleriaren bilakaera (2009-2016)



Iturria: Eustat (2017).

Biztanleriaren egitura parekidea da gizonen eta emakumeen artean, baina biztanleria piramideak erakusten du etorkizunean biztanleriak zahartzeko joera izango duela, autonomia erkidego osoan bezalaxe.

2. irudia. Arrasateko biztanleriaren egitura demografikoa




Iturria: Eustat (2017).

Ikus daitekeenez, piramidearen oinarria erdialdea baino estuagoa da, erdialdean metatzen baita biztanleria bolumen handiena. 35etik 59ra artekoen artean, adin tarteka hartuta, biztanleria bolumena oso antzekoa da. 34 urteko biztanleria taldetik oinarriantze hasten da jaisten. Gizon eta emakumeen arteko parekidetasuna errespetatzen da adin tarte guztietan. 75 urtetik gora hasten da emakumeen kopurua handiagoa izaten, bizi itxaropen handiagoa baitute.

Adin talde handiei erreparatuta, ikus daiteke Arrasateko biztanleria probintziako batez bestekoa baino zaharragoa dela: Arrasateko biztanleen % 23,6k 64 urte baino gehiago dituzte; probintzian, berriz, batez bestean, % 18,63k. Halere, 0-19 adin tartean, biztanleria bolumena probintziako datuetara hurbiltzen da: hurrenez hurren, % 16,8 eta % 17,8.

3. irudia. Adin talde handien erkaketa, Arrasate vs. Gipuzkoa



KIROL SISTEMAN dituen eraginak

- Generoaren parekidetasunak eskatzen du gizon zein emakumeen eskaerei erantzungo dien kirol eskaintza bat diseinatzea.
- Biztanleriaren egiturak eskola kirolaren eta kirol federatuaren jardueri eustea aurreikusten du, eta hirugarren adinean jarduera fisikoa handitzea, biztanleria kopurua handitu egin delako eta aurretiko adinetan kirol jardunari ekin diotelako.
- Hirugarren adinean jarduera fisikoaren eskaerak handiagoak eta askotarikoagoak izango dira, intentsitate desberdineko jarduera gidatuekin, nola hiri ingurunean, hala ingurune naturalean.
- Etorkizunean egingo diren kirol ekipamenduen eskaerak ez dira biztanleria kopurua handitzearen ondoriozkoak izango, baizik eta ekipamenduak zaharkituak daudelako, eta hartzaile horientzako espazioak eraldatzeko premia egongo delako.


Arrasaten 6 auzo daude, eta erdigunea da guztietan garrantzizkoena, bertan biltzen baitira biztanleria bolumen handiena eta zerbitzu gehien. Udala izan ezik, gainerako nukleo guztiak hurbil daude, eta inguruko hiri ehuna osatzen dute.

2. taula. Arrasateko auzoen zerrenda

Biztanleria nukleoa	Biztanleak	Biztanleria, guztira (%)	Arrasate erdigunerako distantzia
Arrasate erdigunea	20.734	% 94,8	0 km
Bedoña	102	% 0,5	2,8 km
Garagartza	218	% 1,0	3,2 km
Gesalibar	713	% 3,3	4,4 km
Meatzerreka	60	% 0,3	1,1 km
Udala	45	% 0,2	12,8km
Guztira	21.872	% 100	-

Iturria: Udalaren webgunea eta Google Maps (2017).

4. irudia. Arrasateko auzoen banaketa



Iturria: Geuk egina, Udalaren webgunean eta wikipedia oinarrituta (2017).

Biztanleriak eguneroko jardueri begira daukan joera, hain justu, Arrasate erdiko nukleora joatearena da, hor baitaude zerbitzu, saltoki eta instalazio gehienak, nola publikoak, hala pribatuak. Herritarrek herri barnean mugitzeko, bereziki, ibilgailu motordun pribatua erabiltzen dute, nahiz eta Udalak berriki egindako Mugikortasun Planak mugikortasun mota hori murrizteko apustua egin duen, garraio publikoa ugarituz eta bereziki joan-etorriak oinez edo bizikletan egiteko joera sustatuz.

3. taula. Arrasate barneko joan-etorrien banaketa

Joan-etorriak (%)	2016	2022rako aurreikuspenak	2028rako aurreikuspenak
Oinez	% 32,2	% 42,1	% 43,7
Bizikletaz	% 8	% 12,5	% 15
Garraio publikoan	% 5,9	% 8,5	% 10
Ibilgailu motordun pribatuan	% 53,9	% 36,9	% 31,3

Iturria: Arrasateko Mugikortasun Plan Integrala (2017).

Mota horretako joan-etorriak sustatzeko lan egitea garrantzitsua da, eta ez soilik zirkulazioa hobetzeko, kutsadura murrizteko edo pareko mugikortasun alderdiak direla tarteko, baizik eta joan-etorri horiek bizi osasungarrirako ohiturak sustatzen dituztelako, bai eta herritarrek bizimodu aktiboagoa izatea ere.

Nabarmentzekoa da Arrasaten Mondragon Unibertsitatea dagoela, eta horrek dakar ikasturtean zehar gazte jendea joan-etorrian ibiltzea, eta, beraz, egunero giro dinamiko eta aktiboa izatea. Unibertsitateak Unibertsitateko Kirol Zerbitzu bat dauka, bereziki udal instalazioak erabiltzen dituena.

Azpmarratu behar da Arrasate ingurune natural aberats eta zabala duela kirol jardunerako. Hainbat luzera eta mailatako bidezidor ugari ditu, bai eta kirola egiteko eremu natural ugari ere udalerritik hurbil; esaterako, Urkulu urtegia.

KIROL SISTEMAN dituen eraginak

- Biztanle gehienak nukleoan daude metatuta, eta bertan daude kirol zerbitzu gehienak. Beharrezkoa da beste auzoetako herritarrei ere kirola egiteko sarbidea bermatzea; bereziki, eskolako ikasleei eta hirugarren adinekoei.
- Daukagun ingurune naturalari esker, kirol ugari egin daitezke aire zabalean; bereziki, udaberrian eta udan.

2.3. UEP, planak eta estrategiak, beste udal eremu batzuetan

Azken urteotan, Arrasateko Udalak hainbat plan estrategiko eta ekintza plan egin ditu, herria hobetzeko asmoz. Hauek dira nabarmentzeko moduko planak eta euren ezaugarriak:


4. taula. Arrasateko plan estrategikoak eta ekintza planak

Plana	Ezaugarri nagusiak
Mugikortasun Plan Integrala 2016	• Garraio ekologiko, iraunkor eta aktiboagoa sustatzen du. • Oinezko eta bizikleta bidezko ibilbideak hobetzea eta zabaltzea (eskoletarako bideak). • Mugikortasun iraunkor eta segurua izateko sentsibilizatzea eta prestatzea.
Arrasateko Hiri Ekonomiaren Plan Estrategikoa 2016	• Egindako azterketan ez da bildu kirol arloari buruzko informazio espezifikorik (kultura eta aisia kategoriaren barnean txertatu da). • Udalerrriaren beraren elementu berezi erakargarriak: mendi ibiliak egiteko ibilbideak eta turismo aktiboko enpresa. • Mondragon marka sortzeko eta jende berria erakarriz turismoa sustatzeko proposamenetan ez da kontuan hartu kirola ere ekonomia sortzailea izan litekeela. Kultura turismora eta lankidetzan oinarritutako ekonomiara bideratuta dago.
Ekintza Plan Turistikoa Lanketa prozesuan (2017)	• Turismoa dinamizatzeko tresna estrategiko eta eraginkorra. • Lehendik dauden baliabideak indartzeko eta berriak gehitzeko helburua, turismoa motor ekonomikoa eta enplegu sortzailea ere izan dadin. • Natur turismoaren lan ildoak.

Iturria: Udalaren webgunea (2017).

2.3.1. ARRASATEKO Mugikortasun Plan Integrala (MPI)

Kirolaren Plan Estrategikoan bizimodu aktiboaren ikuspegia txertatzean, jardun fokua zabaltzen ari gara, eta pertsonen eguneroko jardueretan jarduera fisikoa sustatzen ari gara, kirola egitea aukera osasungarria eta aisiakoa dela nabarmentzeaz gainera. Beraz, ziur asko mugikortasuna izango da hiriek beren biztanleen portaera sedentarioetan



eragina izateko daukaten gaitasun handieneko arloa. Joan-etorriak oinez edo bizikletan egitea bultzatzen duen mugikortasun eredu batek ekarriko du eguneroko jardueretan jarduera fisikoaren maila handiagoak izatea, eta, horrenbestez, “bizimodu aktiboa” bultzatuko da.

Horregatik, MPIn proposatutako estrategiak eta jardunak garatuz gero, zuzeneko eragina izango da udalerriko herritarren jarduera fisikoaren mailetan.

Horrenbestez, MPI barnean, honako helburu hauek nabarmendu beharko genituzke:

2. helb. Oinezkoentzako eta txirrindularientzako bide sarearen azalera handitzea eta sare horren kalitatea hobetzea.
3. helb. Lantokietarako eta ikasketa guneetarako irisgarritasuna bermatzea.
4. helb. Joan-etorriak oinez eta bizikletaz egitea sustatzea.
7. helb. Herritarrek mugikortasun iraunkor eta seguruaren balioei buruz sentsibilizatzea eta horren kontzientzia har dezaten sustatzea.
8. helb. Bideko segurtasuna hobetzea eta garraio modu guztietako erabiltzaileen artean errespetua sustatzea.

Ekintza Planaren barnean proposatutako jardunak, arlo hauetan: oinezko mugikortasuna, bizikleta bidezko mugikortasuna, garraio publikoko mugikortasuna, zirkulazioa antolatzea eta baretzea, bideko segurtasuna, mugikortasuna eta hezkuntza... horiek guztiek aldaketak dakartzate, mugikortasun aktiboaren eredurantz, eta handitu egiten dituzte herritarren jarduera fisikoaren mailak.

2.3.2. Hiri Ekonomiaren Plan Estrategikoa

Arrasateko Hiri Ekonomiaren Plan Estrategikoak ez dio aipamen handirik egiten kirolari; alabaina, udalerriak inguruan duen ingurune naturalaren garrantziari egindako hainbat aipamen ikus ditzakegu, bai eta **mendi ibiliei** egindako aipamenak ere, “Udalerrriaren erakargarritasun berezi” gisa.

Hiri Ekonomiaren Plan Estrategikoak ez dio erreferentzia espezifikorik egiten kirolaren sektoreari, nahiz eta Euskadiko kirol materialen ekoizle nagusietako bat bertan egon. Nolanahi ere den, kirolak Arrasateko ekonomian izan duen garrantzia turismotik dago bideratuta; horregatik, Ekintza Plan Turistikoa dago garatuta.

2.3.3. Ekintza Plan Turistikoa

Ekintza Plan Turistikoa lanketa prozesuan dago. Alabaina, Plan hori Kirolaren Planarekin koordinatzeko asmoz, Turismo Arlotik hainbat lan ildo aurreratu dira, eta ezinbestekoa da horiek koordinatzea, sinergiak bilatzeko eta bi udal planen arteko koherentzia logikoa lortzeko.

Horrekin lotuta, garrantzitsua da nabarmentzea Ekintza Plan Turistikoak ildo estrategiko bat biltzen duela, kirolarekin zuzeneko harremana duena:

1.1. Ibilbideak **BALIZATZEKO ETA EGOKITZEKO eta lehendik dauden ekitaldi eta animazioak **EGOKITZEKO AHALEGINAREKIN JARRAITZEA; ETA TURISMO AKTIBOA USTIATZEKO OINARRIAK FINKATZEA****

Udalaren jardun integralari koherentzia emateko helburuarekin, bi planek helburu, estrategia eta jardun koherente eta koordinatuak finkatu beharko dituzte. Hala, Kirolaren Plan Estrategiko honek aintzat hartu beharko du estrategia turistiko hau, kirol ekitaldiekin, zerbitzuekin, instalazioekin eta espazioekin lotutako jardunak finkatzean.

KIROL SISTEMAN dituen eraginak

- Kirola ere bada udalerriko ekonomia strategiaren parte, onartzen baita ezinbestekoa dela turismo aktiboa sustatzea, eskualdeak eskaintzen duen ingurune natural paregabeari etekina ateraz.

3. ARRASATEKO KIROL SISTEMA

3.1. 1. aztergaia. Kirolaren antolamendua

3.1.1. Udal kirola

Arrasateko Kirol Arloa, hain zuzen, Kirola, Gazteria, Berdintasun eta Hezkuntza zinegotzigoaren barnean dago. 2014ko abenduaren 31ra arte, **Udalaren Kirol Patronatuak** antolatzen zuen udal kirola. Patronatu hura desegin egin zen, **Kirol Arloa udal organigraman** txertatzeko. Hauek dira bere helburu nagusiak:


- Arrasateko kirolaren garapena arintzea, ahaleginak eta proposatutako ekimenak ikuspegi orokor batetik koordinatuz.
- Eskola kilora eta kirol amateurra bideratzea eta bultzatzea.
- Herritar guztiei eskaintzea kirol modalitate denak egiteko aukera.

Arlo honen antolamendu egitura Kirol zinegotziak gidatzen du, eta arloko arduradun teknikoak bideratzen du lana. Arduradun tekniko horrek koordinatzen ditu, beraz, teknikariak, begiraleak, mantentze-lana, zerbitzuen kanporaketa, etab.

Udalaren kudeaketa eredua, bestalde, nola kirol ekipamenduen, hala kirol zerbitzuen zuzeneko kudeaketan oinarritzen da. Zerbitzuetako batzuk zerbitzu pertsonalizatuko enpresak kontratatuz egiten dira, zerbitzuaren premiei erantzun arin, malgu eta eraginkorra eman ahal izateko.

Kirol Arloak 2017rako daukan aurrekontua 1.966.138,26 €-koa da. Azken urteotan, pixkanaka gorako bilakaera izan du. Kopuru hori, hain zuzen, Udalaren aurrekontu arruntaren % 6,43 da (inbertsioak kontuan hartu gabe). Era berean, esan nahi du kirolean biztanleko 80,75 € gastatzen direla, batez bestean.

5. irudia. Kiroletarako aurrekontu arruntaren bilakaera (%-tan), Udalaren guztizko aurrekontu arruntarekin alderatuta



Iturria: Geuk egina, udal aurrekontuetan oinarrituta (2015-2017).

Kiroletarako aurrekontuaren bilakaera aztertu ondoren, azken hiru urteetan ikus daiteke kontu sailen igoera izan dela I. kapituluaren (Langile gastuak), eta, bereziki, II. kapituluaren (Ondasunak eta zerbitzuak). Zerbitzu espezializatuak berebiziko gorakada izan dute, eta horretara bideratzen da aurrekontu arruntaren erdia baino gehiago. Zerbitzu eskaintzaren gorako joera hori ohikoa da Udalaren kirol kudeaketan; izan ere, kudeaketa horrek arintasun handia eskatzen du, eta sarri askotan, tokiko sistemak ezin du modu eraginkorrean ebatzi.

5. taula. Aurrekontuaren bilakaera, kapituluaren arabera (2015-2017)

Kapituluak	2015	%	2016	%	2017.	%
Langile gastuak	638.767,44 €	% 39,8	639.123,52 €	% 37,7	665.047,53 €	% 37,7
Ondasunak eta zerbitzuak	827.500,00 €	% 51,5	886.150,00 €	% 52,3	940.700,00 €	% 53,3
Transferentzia arruntak	140.607,18 €	% 8,8	170.617,74 €	% 10,1	160.390,73 €	% 9,1
Kiroletarako aurrekontu arrunta	1.606.874,62 €	% 94,1	1.695.891,26 €	% 85,6	1.766.138,26 €	% 89,8
Kirol Arloko inbertsioak	100.000,00 €	% 5,9	285.000,00 €	% 14,4	200.000,00 €	% 10,2
GUZTIRA	1.706.874,62 €	% 100	1.980.891,26 €	% 100	1.966.138,26 €	% 100

Iturria: Geuk egina, udal aurrekontuetan oinarrituta (2015-2017).

II. kapituluko gastuen azalpenak zehaztasun handiagoarekin aztertuz gero, ikusiko dugu kontu sail gehienek izan dutela gorakada azken 3 ekitaldi ekonomikoetan.

6. taula. II. kapituluko gastua, azalpenen arabera (2015-2017)


Azalpenak	2015	%*	2016	%*	2017.	%*
Konponketa eta mantentze lanak	69.400,00 €	% 4,3	63.600,00 €	% 3,8	65.700,00 €	% 3,7
Hornidurak	451.100,00 €	% 28,1	444.600,00 €	% 26,2	444.600,00 €	% 25,2
Garbiketa	190.000,00 €	% 11,8	211.000,00 €	% 12,4	211.000,00 €	% 11,9
Kirol materiala eta bulegoko materiala	4.000,00 €	% 0,2	5.500,00 €	% 0,3	6.000,00 €	% 0,3
Komunikazioa	10.600,00 €	% 0,7	9.000,00 €	% 0,5	9.000,00 €	% 0,5
Aseguruak	12.500,00 €	% 0,8	-	% 0,0	-	% 0,0
Kirol jarduerak	66.000,00 €	% 4,1	100.000,00 €	% 5,9	100.000,00 €	% 5,7
Beste kirol zerbitzu batzuk	18.100,00 €	% 1,1	18.000,00 €	% 1,1	18.000,00 €	% 1,0
Uarkape kudeaketa integrala	-	% 0,0	-	% 0,0	50.000,00 €	% 2,8
Beste gastu batzuk	5.800,00 €	% 0,4	8.950,00 €	% 0,5	10.400,00 €	% 0,6
Izotz pistaren alokairua	-	% 0,0	25.500,00 €	% 1,5	26.000,00 €	% 1,5
GUZTIRA, II. KAPITULUA	827.500,00 €	% 51,1	886.150,00 €	% 52,3	940.700,00 €	% 53,3

* %, kiroleko guztizko gastu arruntarekin alderatuta

Iturria: Geuk egin, udal aurrekontuetan oinarrituta (2015-2017).

Ikus daiteke nola aurrekontuaren zatirik handiena kirol instalazioen funtzionamendurako den. Hornidurak, bestalde, kiroleko guztizko aurrekontuaren % 25 osatzen dute, eta II. kapituluko aurrekontuaren ia erdia. Atzetik dator garbiketa, hurrenez hurren, % 11,9 eta % 22,4rekin.

6. irudia. II. kapituluko instalazioetako gastuaren banaketa (%-tan)




Iturria: Geuk egin, udal aurrekontuetan oinarrituta (2017).

KIROL SISTEMAN dituen eraginak

- Kirol instalazioen kostu handia ohiko arazoa izaten da Udalaren kirol kudeaketan, erabilgarri dauden baliabide gehienak xahutu behar izaten baitira, eta horiei gehitu behar zaizkie, gainera, horniduren prezioen gorakada eta kirol instalazioen zahartzea.
- Prebentziozko mantentze lan ona egitea eta energia eraginkortasuna hobetzea funtsezkoa da arlo honetako gastua kontrolatzeko.

Transferentzia arruntek kiroletako aurrekontu arruntaren % 9,1 biltzen dute, eta kirol erakundeak dira onuradun nagusiak.

7. irudia. Kiroletako transferentzia arrunten banaketa (2017)

Iturria: Geuk egina, udal aurrekontuetan oinarrituta (2017).

Kirol klubetako laguntzak emateko, hain zuzen, laguntza ekonomikoak emateko deialdi bat egiten zaie, norgehiagoka erregimenean, kirola sustatzeko egin ohi duten jarduerak gara dezaten. Erakunde horiek ezinbestean egon beharko dute inskribatuta Eusko Jaurlaritzaren Kirol Elkarte eta Erakundearen Erregistroan eta Arrasateko Udalaren Kirol Klub eta Elkarteen Erregistroan. Deialdiaren oinarriak Diru Laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren eta Diru Laguntzak arautzeko 2004ko uztailaren 26ko Udal Ordenantzen arabera dira. Hala, kirolerako oinarri espezifiko batzuk dituzte, irizpide hauen arabera:

- Kirol erakundearen helburuak.
- Gizonen zein emakumeen partaidetza, federazioaren arloan.
- Jardueren iraupena.
- Noizbehinkako jarduerak.
- Kirol zerbitzuekiko lankidetzak.
- Hezkuntza zentroekiko lankidetzak.


- Bestelako irizpide subjektibo batzuk, honako hauetarako: berdintasuna sustatzea, finantzaketa aukerak, belaunaldien arteko transmisioa klubak jarrai dezan, beste erakunde batzuekiko proiektuak, etab.

Nabarmentzekoa da laguntza horiek ezin dutela gainditu kirol erakundearen aurrekontu arruntaren % 50, eta, horrenbestez, erakundeak ezinbestekoa izango du bere finantzaketa egitura lantzea.

Inbertsioei dagokienez, aldakorrak dira urtetik urtera, eta batez ere, Kirol Arloak instalazio gaitan dituen premia espezifikoaren arabera izaten dira, bai eta udal mailan erabilgarri dauden baliabideen eta lehentasunen arabera ere. Kiroletako inbertsio ehunekoaren batez bestekoa, Udalak egindako guztizko inbertsioarekin alderatuta, txikia izan da azken hiru urteotan (% 0,72).

Kirol zerbitzu eta instalazioen bitartez izaten diren diru sarrerak hizpide hartuta, esan daiteke Kirol Arloaren autofinantzaketa maila % 43,3koa izan dela 2017an (inbertsioak kontuan hartu gabe). Autofinantzaketa maila hori, hain zuzen, 2010eko udal zerbitzuen batez bestekotik (% 48,28) pixka bat behera dago, KAITEK egindako 'Kirolak Euskadin duen egoera, ikuspegi orokorra' lanaren arabera. Kirol Arloak tasengatik eta prezio publikoengatik dituen diru sarrerak Udalak tasengatik eta prezio publikoengatik dituen guztizko diru sarreren % 10,69 dira.

8. irudia. III. kapituluko diru sarreren maila. Tasak eta prezio publikoak



Iturria: Geuk egina, udal aurrekontuetan oinarrituta (2017).

Tasengatik eta prezio publikoengatik diru sarreren sailik handiena kirol instalazioetako harpidedunetatik lortutakoa da; atzetik datoz, berriz, kirol ikastaroak, aldian behingo sarrerak eta igeriketa ikastaroak.

7. taula. Tasengatiko eta prezio publikoengatiko diru sarreraren xehetasuna


Azalpenak	2015	%	2016	%	2017.	%
Kirol instalazioetako harpidedunak	471.000,00 €	% 67,5	509.000,00 €	% 68,2	520.000,00 €	% 68,0
Kirol instalazioetarako aldian behingo sarrerak	41.000,00 €	% 5,9	42.000,00 €	% 5,6	46.000,00 €	% 6,0
Ikastetxeetako kirol guneak erabiltzea	56.000,00 €	% 8,0	15.800,00 €	% 2,1	13.000,00 €	% 1,7
Kirol ikastaroak	84.000,00 €	% 12,0	120.000,00 €	% 16,1	125.000,00 €	% 16,3
Igeriketa ikastaroak	40.000,00 €	% 5,7	49.000,00 €	% 6,6	50.000,00 €	% 6,5
Udako kanpaina	1.000,00 €	% 0,1	1.000,00 €	% 0,1	1.000,00 €	% 0,1
Txartel magnetikoak berrezartzea	100,00 €	% 0,0	600,00 €	% 0,1	500,00 €	% 0,1
Kirol instalazioetako asegurueta ezbeharren ordainketa	2.000,00 €	% 0,3	- €	% 0,0	- €	% 0,0
Izotz pistaren diru sarrerak	- €	% 0,0	5.500,00 €	% 0,7	7.000,00 €	% 0,9
Kirol materialaren salmenta	- €	% 0,0	1.725,00 €	% 0,2	1.500,00 €	% 0,2
Bestelako kirol ekitaldi batzuk	500,00 €	% 0,1	500,00 €	% 0,1	500,00 €	% 0,1
Kirol instalazioetako beste diru sarrera batzuk	2.000,00 €	% 0,3	1.000,00 €	% 0,1	500,00 €	% 0,1
GUZTIRA	697.600,00 €	% 100	746.125,00 €	% 100	765.000,00 €	% 100

Iturria: Geuk egina, udal aurrekontuetan oinarrituta (2015-2017).

Azken hiru ekitaldietan, diru sarreraren gorakada sumatu da; seguru asko, krisialdiaren etenaren eraginez kirol jardueretako parte hartzaileen kopurua igo egin delako, eta osasunagatiko eta bizi ohitura osasungarriak edukitzeagatiko kezka handiagoarekin lotutako kirol jardunaren hazkundearen eraginez.

Transferentzia bidezko diru sarrerei dagokienez, ez dira oso garrantzitsuak: guztizko diru sarreretatik 9.500 €. Horrenbestez, zerbitzuaren finantzaketaren % 0,54 baino ez.

9. irudia. Kirol zerbitzuaren finantzaketa (2017)



Iturria: Geuk egina, udal aurrekontuetan oinarrituta (2017).

Autofinantzaketaren analisiak, beraz, Udalaren kirol zerbitzuen prezio sistemari buruzko hainbat balioespen egitera garamatza. Partaidetza prozesuan, ekarpen askok eta askok izan dituzte oinarrian prezioak eta harpidetza bidezko zein instalazioen erabileragatiko tarifa eredia.

Pertsona dezentek adierazi dute ez daudela gustura instalazioen erabileragatiko prezioen eta harpidetzen arteko alderaketa ereduarekin. Era guztietako iritzia jaso baditugu ere, askok eta askok eskatzen dute harpidetza bateratzea ("harpidetza bakarra guztirako"). Beste batzuek, berriz, adierazi dute ezinbestekoa dela bereiztea (alegia, "espazio zehatz bat erabiltzeagatik bakarrik ordaintzea"). Horrek ekarriko luke instalazioen erabileragatiko prezio eredia birpentsatu beharra. Badirudi beharrezkoa dela Udalaren kirol zerbitzuetarako sarbide-zerbitzu-prezio eredia berriz diseinatzea.


KIROL SISTEMAN dituen eraginak

- Kirol Zerbitzuaren diru sarrerak, batez ere, denontzako kirol zerbitzuetatik, harpidetza bidez, eta ikastaroetako kuotetatik datoz.
- Kontu sail guztietan diru sarrerak handitu dira.
- Udalaren kirol instalazioetako tarifa eredia berrikusteko eskatu dute.

Nabarmentzekoa da 2018rako aurrekontuak zehazteko Arrasateko herritar guztiek parte hartzeko moduko aurrekontu prozesu bat ireki dela. Prozesu horretan 352 proposamen jaso dira, eta horietako 66 Kirol Arloari dagozkio.

3.1.2. Kirol eragileak

Arrasatek tokiko kirol sistema osatzen duten hainbat eragile ditu. Guztiek egiten dute lan helburu bakarrarekin: **udalerriko kirola aberastea eta haz dadin lortzea, kirola kalitate maila handiz hornituz**. Kirol eragile horiei *stakeholder* ere esaten zaie. Kirolaren dinamikekin eragiteko edo beraiei eragin diezaieten aukera duten pertsonak, taldeak edo erakundeak dira (Edward Freeman, 1984). Hainbat izaera edo ezaugarritakoak izan daitezke, besteak beste, dauzkaten interesen, jarrera etikoen, interesen legezatasunaren, boterearen eta asmoak betetzeko presakotasunaren arabera (Klaus Heinemann, 2006).

10. irudia. Kirol sistema baten *stakeholderen* mapa

Iturria: Geuk egina (2017).

Udalerrri batean, Udalak kirola sustatzeko duen zereginaz gainera, arestian ikusi dugun moduan, badaude kirolaren sustapen eta antolamendu horretan parte hartzen duten beste eragile batzuk ere, kirol sistema osatzen eta aberasten dutenak. *Stakeholderak* identifikatzea funtsezkoa da kirol sistema osoaren kudeaketa estrategikorako; izan ere, horiek guztiek elkarrekin erlazionatzen dira eta elkarrekin lankidetzan jardute dute udalerrriko jarduera fisikoaren eta kirolaren alde.

Arrasateren kasuan, hauek dira kirol eragile garrantzitsuenak:

11. irudia. Arrasateko kirol eragile nagusiak



Iturria: Geuk egina (2017).

Jarraian, Udalaren kirol sistemarekin lotuta bakoitzak dituen ezaugarri nagusiak zehaztuko ditugu.

A. Kirol Mahaia:

Kontsulta organo bat da, eta aholkularitza, kontsulta, informazioa, jarraipena eta eztabaida eskaintzen ditu Udalaren kirol politikari eragiten dioten gaitan. Kirol klubetako, ikastetxeetako, unibertsitateetako, kirol eskoletako... ordezkariak osatzen dute. Baita beste udal arlo batzuetako ordezkariak ere; hala nola berdintasuna, gazteria edo hirugarren adina arloetakoak.

2016ko azaroan jarri zen martxan. Kirolaren arloko Kontseilu Aholkulari honen partaidetza eta funtzionamendua aldarora izan da denboran zehar; hala, une batzuetan lan handiagoa egin du, eta beste batzuetan, ez hainbeste. Jarraikitasuna eta erabilgarritasuna bermatzeko, ezinbestekoa da dinamizatzea eta baterako puntu interesgarriak aurkitzea, kide guztiek parte har dezaten eta elkarrekin lan egin dezaten, kirol sistema hobetzeko asmoz.

B. Ikastetxeak, Guraso Elkarteak eta LEK

Leintz Eskola Kirola (LEK) arduratzen da, batez ere, eskola adineko kirolaren dinamizazioaz Arrasaten zein eskualdean. Irabazi-asmorik gabeko elkarte bat da, eta honako hauek parte hartzen dute bertan:

- Udalak:
- Leintz Gatzaga
- Eskoriatza
- Aretxabaleta
- Arrasate
- Aramaio
- Ikastetxeak:
- Luis Ezeiza Herri Eskola
- Kurtzebarri LH Herri Eskola
- Arizmendi Ikastola
- Arrasate Herri Eskola
- Aramaioko San Martin Herri Eskola
- Kurtzebarri BHI
- Arrasate BH Institutua
- Foru Aldundiak:
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Arabako Foru Aldundia

12. irudia. LEKen egitura



Eskola adinean herritarrek duten partaidetza nabarmentzekoa da, ikasleen % 41,9k parte hartzen baitute, batez bestean. Eskola kiroleko partaidetzari buruzko datuak zehaztasun handiagoz hurrengo puntuan aztertuko baditugu ere, taula honetan, eskola kiroleko jokoetan izandako parte hartzea ikus dezakegu, ikastetxeen arabera.

8. taula. Eskola kiroleko partaidetza, ikastetxeen arabera (2015-2016)

Ikastetxea	Gutzira	Mutilak	Neskak	Ikasleak (%)
ARIZMENDI-GAZTELUONDO	140	99	41	%46,4
ARIZMENDI- STA TERESA	70	42	28	%49,3
ARIZMENDI-ARIMAZUBI	141	93	48	%62,1
ARIZMENDI-GAZTELUPE	76	32	44	%30,0
ARRASATE H.E	189	120	69	%40,8
ARRASATE BHI	46	27	19	%23,0
GUZTIRA	662	413	249	%41,9
GUZTIRA LH	540	354	186	%50
GUZTIRA, BH	122	59	63	%27
GUZTIRA IKASTETXE PUBLIKOAK	235	147	88	%32
GUZTIRA IKASTETXE PRIBATUAK	427	266	161	%47

Iturria: Geuk egina, Udalaren dokumentazioan oinarrituta (2017).

Bestalde, argi ikusten da partaidetza nabarmen murrizten dela lehen hezkuntzatik bigarren hezkuntzarako jauzian, adin horretan kirol klubetan eta kirol federatuetan hasten baitira.

Nabarmenezkoa da, halaber, mutilen partaidetza neskena baino askoz handiagoa dela: parte hartzaile guztien artean % 62,4 mutilak dira, eta, % 37,6, neskak.

C. Kirol klubak eta erakundeak

Kirol klubak dira kirol federatuaren sustatzaile nagusiak, askotariko kirol motak egiten baitituzte. Arrasateren kasuan, guzti-guztiek erabiltzen dituzte Udalaren kirol instalazioak, ez baitago bere instalazioak dituen kirol klub bakar bat ere. Horrenbestez, erakunde hauek Udalarekiko duten mendekotasun maila handia izaten da, nola kirol espazioak doan erabiltzen dituztelako, hala dagozkien irizpideak betetzeagatik urtero esleitzen zaizkien diru laguntzengatik.

Arrasaten 24 kirol klub daude, eta kirol eskaintza daukate bai eskolako haurrentzat, bai helduentzat, eta 2.050etik gora pertsonak parte hartzen dute.

9. taula. Arrasateko kirol klubaren zerrenda


	Kirol klubaren izena	Kirolak	Parte hartzaileak	Eskola ko haurrak	Helduak
1	ARRASATEKO KIROL ELKARTEA	Tenisa eta padela	46	x	x
2	DEBAGOIENEN AMILLEN AIRE KIROL TALDEA	Aire kirolak	21		x
3	ANTXINTXIKI DEBAGOIENA ARRASATEKO TRIATLOI KIROL T	Triatloia	51		x
4	ARIZMENDI IKASTOLA FUTBOL KIROL ELKARTEA LEINTZ BAILARA	Futbola	109	x	x
5	ARRASATE ATLETICO TALDEA	Atletismoa	109	x	x
6	AMASGAS KIROL KLUBA	Automobilismoa			
7	BESAIDE MENDIZALE ELKARTEA	Mendia	889	x	x
8	DEBAGOIENA TXIRRINDULARITZA KLUBA	Txirrindularitza	55		x
9	DESOREKA JUDO KLUBA	Judoa		x	
10	DORDOKA	Boccia			x
11	DORLETAKO AMA	Txirrindularitza	55	x	x
12	ARRASATE ESKUBALOI TALDEA	Eskubaloia	73	x	x
13	ARRASATEKO DRAGOI GIMNASIA K. T. / C.D. DE GIMNASIA DRAGOI DE ARRASATE	Gimnastika erritmikoa eta aerobika	24	x	x
14	JUDO CLUB ARRASATE	Judoa	6*		x
15	KARATE ZIORLA ARRASATE CLUB	Karatea	15*		x
16	C.F. MONDRAGON	Futbola	366	x	x
17	MONDRAITZ KIROL KLUBA	Mendia			

18	CLUB DEPORTIVO MONDRATE	Areto futbola	27	x	x
19	C.D. DE BALONCESTO OINTXE DE MONDRAGON	Saskibaloia	164	x	x
20	A. D. ARRASATE PILOTA TALDEA	Euskal pilota	12	x	x
21	A. D. ARRASATE ERRUGBI TALDEA OBELIX	Errugbia	51	x	x
22	C. AJEDREZ SAN ANDRES	Xakea	5	x	x
23	AIKIDO	Aikidoa			
24	DEBAGOIENENKO ESKALADA	Eskalada			

Iturria: Geuk egina, Udalaren dokumentazioan eta Eusko Jaurlaritzaren kirol erakundeen erroldan oinarrituta (2017).

Kirol klubaren federazio fitxen erdiak baino gehiago senior kategoriako helduenak dira. Hala da, hain zuzen, kirol federatua 12 urtetik aurrera hasten delako, eta baita lehiakorrak ez diren kirol elkarteetan federazio fitxak ugaltu direlako ere, mediku aseguruarekin eta istripu aseguruarekin lotutako alderdiak direla tarteko.

13. irudia. Kirol klubaren lizentzien banaketa, kategorien arabera



Iturria: Geuk egina, dokumentazioan oinarrituta (2017).

Nahiz eta benjaminen eta kimuen kategorietako kirola eskola kirolekoa izan, kirol fitxa berekia daukana, kirol klubak oinarritzko taldeak xertatzeko eskatzen ari dira, adin goiztiarretan ere maila federatuan lehiatzen has daitezten. Kontrako iritziak daude: batzuek multikirolei ekin behar dietela uste dute, eta beste batzuek, berriz, adin goiztiarretan espezializatu behar direla kirolen batean.

Euskadin, 2012 eta 2016 arteko kirol lizentzien bilakaerari erreparatuz gero, ikus dezakegu Arrasaten egiten diren kirol gehienetan gorazko joera izan dela: 2012an baino kirol federatuaren 2.500 lizentzia gehiago daude 2016an.

10. taula. Euskal federazioetako kirol lizentzien bilakaera (2012-2017)

Federazioa	Joera ↑ 2012-2016	Federazioa	Joera ↓ 2012-2016
Xakea	↑	Txirrindularitza	↓
Atletismoa	↑	Aire kirolak	↓
Automobilismoa	↑	Kirol egokitua	↓
Saskibaloia	↑	Errugbia	↓
Eskubaloia	↑	Tenisa	↓
Gimnastika	↑		
Karatea	↑		
Mendia	↑		
Padela	↑		
Triatloia eta kirol	↑		

Federazioa	Joera = 2012-2016
Futbola	=
Judoa eta kirol elkartuak	=

Iturria: Eusko Jaurlaritza (2017).

Azken urteotan, klubak kudeaketan eragina izan du lan, kontabilitate eta zerga gaietan oso garrantzitsuak diren araudi, lege eta erregelamendu batzuk indarrean jarri izanak. Horiek agertzeari gehitzen badiogu administrazio gardentasunari buruzko xedapen berriak ere badaudela, are konplexuagoa bihurtu da kirol erakunde askoren ekonomia eta antolamendu kudeaketa. Araudi horien artean, nabarmentzekoak ditugu hauek:

- Lan arloko ikuskaritzak, estatu mailan.
- Espainiako federazioen finantzaketarako lizentzia bakarra ezartzea.
- Sozietateen gaineko Zerga aurkezteko salbuespena desagerraraztea urtean diru sarrera gutxien dituzten kirol erakundeentzat (50.000,00 €-tik aurrera), eta kontu sail biko kontabilitatea eramateko derrigortasuna.
- BEZa % 21era igotzea; nahiz eta asko eta asko zerga hori ordaintzetik salbuetsita dauden, zerbitzuak erosi edo ordaintzean badu eragina.
- Gardentasun legetik eratorritako betebeharrak.

Elkarketaren sektorean oro har gertatzen den bezala, Arrasateko erakundeak kezkatuta daude indarrean dauden araudi eta legeak direla tarteko; izan ere, horietara egokitu eta euren egoera horien arabera erregularizatu behar izaten dute. Kontuan izan behar dugu erakundeek lehendik dauden kotizazio baremoak aplikatu behar badituzte gizarte segurantzako kotizazioei aurre egiteko, ezinbestekoa izango dutela soldatetara bideratutako aurrekontuko sailak % 50 inguru handitzea, eta, horrenbestez, aurrekontuak orekatzeko, diru sarrerak handitu beharko dituzte nahitaez. Diru sarreren hazkunde hori, batez ere, kirolariak ordaintzen dituzten kuoten igoeratik etorriko litzateke, horixe baita kirol erakundeen finantzaketa iturri nagusia. Eta horrek, era berean, ekar lezake kirol klubetako kuotak ordain ditzaketen pertsonen kopuruak behera egitea. Doikuntza ekonomiko hori eginez gero, prezioa oztopo bihurtu liteke kirol elkarteetara sartzeko.

Erakundeetan ere lan egiten jarraitu behar dugu, 'boluntario kontratatuen' irudi anbiguoarekin kontratatutako pertsonak erregularizatu ahal izateko. Argi dago udalerrian lanean ari garela erakunde guztiek euren kontratupeko langileak kontratatzeke ezarrita dauden arauak bete ditzaten. Nabarmenezkoa da, halaber, pertsona boluntarioen egoera erregularizatzeko, erakundeei eskatu behar zaiela erakundearen beraren eta pertsona boluntarioaren artean erabaki formal bat sinatzeko, bigarrenak boluntario gisa jardun ahal izateko.

Egoera honi aurre egiteko dauden zailtasunengatik dagoen kezka ere agerikoa da; izan ere, araudi berriak modu batean zein bestean eragiten dio erakunde bakoitzari, erakundearen ezaugarriak eta izaera kontuan hartuta. Erakundearen egoera erregularizatzeko beharrezkoak diren izapideak ez ezagutzea eta araudietara egokitu beharra ere badira udalerriko hainbat erakunderen ahulguneak, eta erakunde horiek behar-beharrezkoa dute aholkularitza eta babes profesionala, lege eta araudi kontuetan egunean jartzeko. Eskaera hori, dena den, konplexua da, kasu batzuetan erakundeak ez baitu gaitasun ekonomikorik zerbitzu horiek ordaintzeko, eta, gainera, guztia ezartzeko administrazio zeregin ugari egin behar izaten dira.

D. Arlo pribatua

Arrasaten, hainbat ekimen pribatu daude kirol arloan, honela sailka daitezkeenak: kirol zentroak eta kirol produktuen edo/eta zerbitzuen enpresak.

Kirol zentroei dagokienez, Arrasaten hainbat instalazio pribatu daude, nahiko modu espezializatuan kirol jarduerak eskaintzen dituztenak; esaterako, fitnessa, jarduera gidatuak, borroka arteak, yoga edo pilatesa.

11. taula. Arrasateko zentro pribatuen zerrenda

Kirol zentroa	Jarduera mota
Nerea-M Dance & Fitness Gimnasioa	Fitnessa eta jarduera gidatuak
Saioa Gimnasioa	Fitnessa, jarduera gidatuak eta borroka arteak
Ziga-Gym Gimnasioa	Fitnessa, jarduera gidatuak eta borroka arteak
Irudi-Sport Gimnasioa	Fitnessa eta jarduera gidatuak
Beti-Ona Gimnasioa	Fitnessa eta jarduera gidatuak
Sadhana Yoga	Yoga eta pilatesa
Arrasate Yoga Elkarte	Yoga eta pilatesa


Iturria: Geuk egin (2017).

Zentro hauetako gehienak txiki samarrak dira, eta jarduera espezifikoak eskaintzen dizkiete batez ere helduei; pertsonalizazio eta hurbiltasun maila handia dute. Oraingoz, ez dago inolako gimnasio nazional edo nazioartekorik, ez eta low cost zentrorik ere. Udalaren Kirol Zerbitzuaren eta kirol zentro pribatuen artean ia ez da egiten lankidetzak ekimenik.

Bestalde, udalerrian badaude kirol zerbitzu eta produktuekin zerikusia duten bestelako enpresa batzuk; esaterako, kirol produktuen dendak, nazioarteko kirol produktuen diseinuaz eta ekoizpenaz arduratzen den enpresa (Ternua Group), kirol jardueretarako enpresak (Mendritix), edo kirol zerbitzuetan eta kirol medikuntzan oinarritutako enpresak (Athlon).

Ekimen pribatu horiek kirol jarduera sortzen eta sustatzen dute udalerrian, bai eta lanpostuak ere. Eta, gainera, Arrasate/kirola binomioari balioa erantzen diote.

14. irudia. Arrasateko kirol zentro pribatuen zerrenda



E. Jarduera fisikoko eta kiroleko prestakuntza eragileak

Arrasaten dago Mondragon Unibertsitatea, hezkuntza berrikuntzari dagokionez erreferentziazko unibertsitatea. Goi mailako hezkuntza erakunde honek, bere ikastegietako ikasleen artean kirol jarduera sustatzen duen kirol zerbitzua edukitzeaz gainera, kirolaren arloko hainbat prestakuntza gidatzen ditu:

- Lehen hezkuntzako gradua, Hezkuntza Fisikoko eta Kirol Jarduerako espezialitatearekin.
- Unibertsitateko Adituaren ikastaroa, Marketina eta Managementa izenekoak, surfari eta irristatze kirolei aplikatua.

Bestalde, Arizmendi hezkuntza zentroan kirol jardueretan hasteko goi mailako gradua ematen da.

Gure ingurunean hezkuntza zentro horiek eta kirolean espezializatutako hezkuntza eskaintza bat izatea oso baliagarria da, horri guztiari esker sektoreko profesional ugari baitaizkagu, eta kirolaren, jarduera fisikoaren eta bizi ohitura osasungarrien arloarekin lotutako ideia eta proiektu berriak sortzen baitira.

F. Kirol eragileen arteko koordinazioa eta lankidetzak

Udalerriko hainbat gizarte eta kirol eragileri egindako elkarrizketetan, euren arteko koordinazioari eta lankidetzari buruzko iritzi ugari sortu dira.

Jardueren koordinazioari eta instalazioen erabileraren koordinazioari dagokienez, alde handiak hautematen dira klubek egindako balioespenen eta ikastetxeetako arduradunek egindako balioespenen artean.

Klubek euren jarduerak Udalarekin koordinatzean izaten dituzten zailtasunen berri eman dute. Alde batetik, klubetako pertsona arduradunak boluntarioak izateak asko zailtzen du administrazio prozesuak betetzea, "oso burokratikotzat" jotzen baitituzte. Gainera, euren aburuz, ez dituzte aintzat hartzen kirol modalitate bakoitzaren espezifikotasunak.

Gehiegizko burokraziaren uste hori bereziki nabarmena da diru laguntzen kudeaketari gagozkiolarik. Administrazio publikoek baliabide publikoen erabilera egokia bermatzeko izaten dituzten eskakizun burokratikoak diru laguntzetara lekualdatzeari buruz galdetuta, prozesuan zehar egindako partaidetza saioetan parte hartu duten kirol klubek balioespen negatiboa egin dute.

Parte hartu duten klub gehienek ustez, beharrezkoa da diru laguntzen eredua eta irizpideak berrikustea, eta administrazio legezketasunari egokituko bazaizkio ere, klubaren errealitateetara hobeto egokitzea.

Bestalde, sinergiak sortzeko eta baliabidek partekatzeko premia dagoela adierazi dute, udalerriko elkarten administrazio eta kudeaketa ahalegina murrizteko. Hala dela ikusita, udalerriko klub guztientzako administrazio sistema bateratu bat sortzeko aukera proposatu da.

Instalazioen erabilerari dagokionez, adierazi dute horien erabileran segurtasuna emango dieten hitzarmenak finkatzeko premia dagoela, uste baitute ez dituztela behar beste berme, eta horrek arazoak sortzen dizkiela federazioekin, lehiaketetako egunak eta orduak finkatzeko.

Ikastetxeek, ordea, ez dute horrelako arazoen berri eman, eta gogobetetze maila handia erakutsi dute Udalarekin duten harremanari dagokionez, bai eta euren jarduerak koordinatzeko eta lankidetzan jarduteko dituzten erraztasunei dagokionez ere.

KIROL SISTEMAN dituen eraginak

- Hainbat eragile, tokiko kirol sisteman zeregin garrantzitsu eta osagarria dutenak.
- Kirol sektorea eraldatzea, nola arlo publikoaren zein pribatuaren arteko lankidetzari dagokionez, hala kirol erakundeen testuinguru juridikoan. Aurre egiteko zailtasunak.
- Orain artean, hainbat kolektiborengan eragina duten eragileen arteko bizikidetzak izan da, baina etorkizunari begira, sinergiak sortzeko eta lankidetzak handiagoa izateko joera/beharra aurreikusi da.
- Kirol eragileen arteko sinergiak sortzeko aukera, klubekin duten koordinazioa hobetzeko.
- Gure inguruan kirolaren arloan erreferentziazkoak diren prestakuntza zentroak eta kirolaren sektoreko enpresak edukitzea, kirola + enpresa + prestakuntza sektoreak batu, eta hainbat aukera sortzeko asmoz.

3.2. 2. aztergaia. Kirola, osasuna eta hezkuntza

3.2.1 Kirola eskola adinean

Espainiako ikasleen % 63k egiten dute kirola, modu antolatuan, gutxienez astean behin. Mutilen eta nesken artean 20 puntuko aldea dago, mutilen % 73k eta nesken % 53k egiten baitute. Eskola adinean kirol jardunaren indize horiek askoz ere handiagoak dira Euskadin; zehazki, mutilen % 85ek eta nesken % 70ek egiten baitute kirola, azterlan bereko datuen arabera.

15. irudia. Kirol jardunaren laburpena, Euskadin.

EUSKADI

IKASLEAK 217.757

LAGINA 776 (%3,5eko errore marjina)

KIROL JARDUERAFISIKO ANTOLATUA

- Mutilen %85
- Nesken %70

ANTOLATU GABEKO KIROL JARDUERAFISIKO

- Mutilen %89
- Nesken %80

KIROL JARDUERAFISIKOAREN INDIZEA

- Sedentarioak: %28
- Nahiko sedentarioak: %13
- Nahiko aktiboak: %12
- Aktiboak: %47


OPORRETAN EGITEN DEN KIROL JARDUERAFISIKO

- %88

Iturria: Kirol Kontseilu Gorenak kirol ohiturei buruz ikasleei egindako inkesta (2010).

Eskola adinean kirol jardunari dagokionez dagoen aldea, hain zuzen, Euskadin eskola adinerako dagoen kirol sistemaren eraginezkoa da. Hezkuntza etapan eskolaz kanpoko ordutegian kirol jarduna sustatzearen aldeko apustua giltzarria izan da, hezkuntza garapenaren osagarri gisa. Kirola eskolan egitean oinarritutako kirol eredu bat sortzea (12 urtera arte kirol modalitate guztiak ezagutzeko aukerarekin), horixe izan da kirol jardunaren indize handia lortzeko arrazoi nagusietako bat.

16. irudia. Arrasaten kirolean hasteko eredu.



Arrasateko eskola kiroleko eragile nagusiak **ikastetxeak** eurak eta **Udala** dira, **LEKen** bitartez; bai eta **kirol klubak** eta **kiroldegiko udal eskaintza** ere, lehiarakoak ez diren ikaskuntza eta osasun jarduerekin (esaterako, igeriketa). **Eskaintza pribatuak** ere egon badaude, baina ez ditugu datu espezifikoak. Dena den, eskola adinean oso-oso urria da horien erabilera, gainerako eragileekin alderatuz gero.

Euskadin, eskola etapako kirolaren antolamenduak finkatuta dauka 12 urtera arteko kirola bereziki ikastetxean edo udal zentroetan egin behar dela, lehia federaturik gabe, eta kirol modalitate ugariren jarduna sustatuz. Etapa honetan, beraz, kirola kirol klubetan egin arren, eskola kirolari dagozkio lizentziak. 12 urtetik aurrera, ordea, klubek maila federatuan jardun dezakete lehian, dagokion federazioaren lizentzia espezifiko batekin.

Eskola adinekoen kirol jarduna aztertzeko, eskola adinekoen kirol jarduna 3 adin tarte handitan banatuko da, kirol jarduerak sustatzen dituzten eragileen arabera.


ESKOLAKO ETAPAK:

- Lehen hezkuntza, 6-12 urte (LH1-LH6)
- Bigarren hezkuntzako 1. zikloa, 12-14 urte (DBH1-DBH2)
- 14 urtetik 17 urtera

A. Kirola, 6-12 urte arteko etapan

2016/2017 ikasturtean, 678 haurrek parte hartu zuten eskola kirolean; izan ikastetxean bitartez, izan kirol klubetan bitartez. Kopuru hori, hain justu, adin tarte horretako % 43 da, eta alde nabarmena dago mutilen eta nesken artean.

17. irudia. 6-12 urtekoek eskolaz kanpoko eskola kirolean duten partaidetza (2016/2017)



Iturria: Geuk egina, kirol klubaren eta LEK-en datuetan oinarrituta (2017).

Kirol eskola antolatuaren edo/eta beste ikastetxe batzuek sustatutakoaren helburua da, hain justu, multikirolei ekitea, bilakaera etapa bakoitzera egokituta. Horregatik, LH1 eta LH2 etapan egiten diren jarduerak bat datoz jolasezko eta olgetarako jarduerekin. LH3tik LH6ra bitarte, aldiz, multikirola egiten dute, eta aukera izango dute hainbat kirol modalitate eta ibilbidetan sartzeko.

Kirola ikastetxeen bidez edo kirol klubaren bitartez egiten duten aintzat hartuta datuak xehakatzen hasiz gero, ikusiko dugu **sexuen arteko aldea are handiagoa dela. Neska gehiagok parte hartzen dute eskola kirolean**, nahiz eta taula honetan ikusten den bezala, adinean aurrera joan ahala kopuruak behera egiten duen. Izan daiteke eskolako ez den zentro batean aritzen direlako (kiroldegia, kluba edo zentro pribatua) edo kirola egiteari uzten diotelako.

12. taula. 6-12 urtekoek LEKen eskola kirolean duten partaidetza (2016/2017)

Adina eta kategoria	Guztira	Kirola egiten dutenen %, ikasle guztiekin alderatuta	Mutilak	%, guztizko parte hartzearekin alderatuta	Neskak	%, guztizko parte hartzearekin alderatuta
Benjaminurrekoak LH 1 + 2 6-7 URTE	198	% 37,3	132	% 66,7	66	% 33,3
Benjaminak LH 3 + 4 8-9 URTE	297	% 55,4	211	% 71,0	86	% 29,0
Kimuak LH 5 + 6 10-12 URTE	183	% 34,7	107	% 58,5	76	% 41,5
GUZTIRA LH1-LH6 6-12 URTE	678	% 42,5	450	% 66,4	228	% 33,6

Iturria: LEKen datuak (2017).

Adin goiztiarretan kirol klubetan sartzearena Euskadi osoan gertatzen den gertakaria da, eta agerian uzten du eskola kirolaren eredia berrikusi edo/eta berregokitu egin behar dela. Hauek dira horretarako arrazoi nagusiak:

- Familia ugari egiten duten gizarte presioa, haurrak adin goiztiarrean has daitezen espezializatzen, eskola ereduaren hezkuntza proiektua batere aintzat hartu gabe.
- Klubek parte hartzaileak erakartzeko duten borondatea, oinarritzko kategoriak indartu eta piramide formako eredia izateko, adin goiztiarrean espezializatzen has daitezen eta baita bide horretatik euren diru sarrerak handitzeko ere.

13. taula. 6-12 urtekoek klubetako kirol eskoletan duten partaidetza (2016/2017)

Adina eta kategoria	GUZTIRA	Kirola egiten dutenen %, ikasle guztiekin alderatuta	Mutilak	%, guztizko parte hartzearekin alderatuta	Neskak	%, guztizko parte hartzearekin alderatuta
Benjaminurrekoak LH 1 + 2 6-7 URTE	109	% 20,5	40	% 36,7	69	% 63,3
Benjaminak LH 3 + 4 8-9 URTE	130	% 24,3	27	% 20,8	103	% 79,2
Kimuak LH 5 + 6 10-12 URTE	170	% 32,3	79	% 46,5	91	% 53,5
GUZTIRA LH1-LH6 6-12 URTE	409	% 25,7	146	% 35,7	263	% 64,3

Iturria: LEKen datuak (2017).

KIROL SISTEMAN dituen eraginak

- Eskola kiroleko partaidetza oso handia da, eta nabarmentzekoa da kirol klubetan bitartez izaten duten partaidetza.
- Generoaren arabera desberdintasun ugari daude kirol jardueran: nesken parte hartzea txikiagoa da, nahiz eta horien artean ere parte hartzea handiagoa den kirol eskoletan klubetan baino.
- Kirol ereduari esker, multikirolei ekiteko aukera dago, nahiz eta geroz eta eskaera edo presio handiagoa dagoen kirol klubetan bitartez adin goiztiarrean espezializatzen has daitezen.

B. Kirola, 12-14 urte arteko etapan

Kirol Kontseilu Gorenak eskola adineko kirol ohiturei buruz egindako inkestan identifikatu da lehen hezkuntzatik bigarren hezkuntzarako jauzian kirola **egiteari uzten diotela modu nabarmenean, batez ere neskek**. Horregatik, interesgarria da adin tarte honetako kirol jarduna aztertzea.


Ikus daiteke adin tarte horretan (haur kategoriari dagokio) guztira 353 parte hartzaile daudela: % 49,9 mutilak dira, eta, % 50,1, neskak. Kategoriatan honetan **kirol sustatzaile nagusi gisa kirol eragilearen aldaketa** gertatzen dela sumatzen da, eta klubek biltzen dituzte parte hartzaileen % 59,8; eskola kirolak, berriz, % 40,2.

14. taula. 12-14 urtekoentzako kirol eskaintza

	GUZTIRA	Kirola egiten dutenen %, ikasle guztiekin alderatuta	Mutilak	%, guztizko parte hartzearekin alderatuta	Neskak	%, guztizko parte hartzearekin alderatuta
LEK	142	% 25,6	54	% 38,0	88	% 62,0
KLUBAK	211	% 38	122	% 57,8	89	% 42,2
GUZTIRA	353	% 63,6	176	% 49,9	177	% 50,1


Iturria: LEKen datuak (2017).

18. irudia.12-14 urte artekoek LEKen eta kirol klubetan duten partaidetza (2016/2017)



Iturria: Geuk egina, kirol klubetan eta Udalaren datuetan oinarrituta (2017).


Guztizko baturan, sexuen arabera partaidetza parekidea da eskola kirolean, nahiz eta, gero, eskola kirolean jarraitu edo klubetan jardun federaturako jauzia egin aukeratzean, aldeak sumatzen diren. Lehenengo aukeran (eskola kirola) gehienak neskak izaten dira; klubetan, berriz, mutilak.

19. irudia. 14-17 urtekoek klubetan duten partaidetzaren bilakaera (2014/2017)**KIROL SISTEMAN dituen eraginak**

- Kluben garrantzia handitu egiten da 10 urtetik aurrera.
- Jardunean oreka sumatzen da sexuen artean, nahiz eta ikusten den adin tarte horretan mutilek erabakitzen dutela klubetako jardun federaturako jautzia egitea, eta neskek, berriz, eskola kirolean jarraitzea.

C. Kirola, 14-17 urte arteko etapan

14 urtetik aurrera, ez dago kirol eskolako eskaintzarik; beraz, gainerako kirol eragileen artean banatu behar da dena: herriko klubak, udal eskaintza eta eskaintza pribatua. Kirol klubetako partaidetzari erreparatuta, azken urteotan parte hartzaileen kopuruak gorako joera izan duela ikus dezakegu; alabaina, mutilen kopuruak nabarmen egiten du gora, eta neskenak, aldiz, ez.

20. irudia. 14-17 urtekoek klubetan duten partaidetzaren bilakaera (2014/2017)

Iturria: Geuk egina, kirol klubetan datuetan oinarrituta (2017).

Hala gertatzen da, agian, klubek eskaintzen dituzten kirol jarduera motengatik: gehien-gehienak lehiarakoak eta gizonezkoen kirolarekin lotutakoak. Adin tarte horretan, neska askok nahiago izaten dute osasunera bideratutako kirolak egin, jolasarekin lotura handiagoa dutenak, oro har Udalak edo sektore pribatuak eskainitakoak, eta, betiere, jardun malguarekin, ikasketekin bateratu ahal izateko.

Hurrengo taulan, hain zuzen, kirol klubek duten partaidetza ikusiko dugu, kirol modalitateen arabera, eta ohartuko gara gimnastika erritmikoa dela berez neskena den kirol bakarra, nahiz eta saskibaloia, atletismoa eta futbola izan neska gehienek egiten dituzten kirolak.

15. taula. 14-17 urtekoentzako kirol eskaintza, klubetan

Eskola Kluba 14-17 urte	Guztira	Emakumeak	Gizonak
Xakea	4		4
Atletismoa	52	33	19
Eskubaloia	42		42
Saskibaloia	131	60	71
Boccia	3		3
Txirrindularitza	23	1	22
Futbola	199	37	162
Gimnastika erritmikoa eta	22	22	
Judoa	24	10	14
Mendia	13	4	9
Euskal pilota	10		10
Erraketa	11	5	6
Errugbia	22	1	21
Triatloia	2		2
Guztira	558	173	385

Iturria: Geuk egina, kirol klubetan datuetan oinarrituta (2017).

Nabarmentzekoa da adin tarte honetatik aurrera, eskolaz kanpoko denboraren erabilera neska-mutilena euren dela, eta aisialdi eta kultura eskaintza zabala dago, kirol eskaintzari lehia egiten diona.


KIROL SISTEMAN dituen eraginak

- Generoaren arabera kirol jardunean aldeak handiagotu egiten dira (neskek kirol gutxiago egiten dute). Adin horretatik aurrera, neska-mutilen arteko lehentasunak desberdinak dira, eta neskek klubek eskaintzen ez dituzten jarduerak egin nahi izaten dituzte.
- Klubek kirol eskaintza eta jardunaren ezaugarriak gehiago daude bideratuta mutilei.
- Adinen arabera kirol eskaintza berbideratzeko premia dago, kirola egiteari utz ez diezaioten (batez ere, eskola kirolaren etapa amaitzean).

D. Kirol jardunaren bilakaera eta kirola egiteari uztea

Aipatu dugun moduan, kirola egiteari uzten zaio lehen hezkuntzatik bigarren hezkuntzarako jauzian, eta adinean aurrera egin ahala, kirol erregularren indizea murriztuz joaten da.

21. irudia. Espainiako haurrek egiten duten kirol jardueren fisiko antolatua, sexuaren eta adinaren arabera



Iturria: Kirol Kontseilu Gorenak kirol ohiturei buruz ikasleei egindako inkesta (2010).

Arrasaten, ordea, kirol jardunak egonkor eusten dio 14 urtera arte (bigarren hezkuntzako bigarren urtea), eskola kirolak 12-14 urteko haurrentzat daukan eskaintzari esker. Eskaintza hori dagoenez, modu naturalagoan egiten dute kirol federaturako jauzia. Gainera, hori ez da izaten aukera bakarra, eta eskola kirolean jarraitzeko aukera ere izaten dute.

Datuen arabera, gertakari hori garrantzitsua da bereziki nesken artean. Adin tarte horretan, eskola kirolean jarraitzen duten nesken kopurua mutilena baino handiagoa da, mutilek klubetako kirol eskaintzarako jauzia egin ohi baitute.

Era horretan, garrantzitsua izango da 14 urtetik aurrerako mutilentzako (eta, bereziki, neskentzako) kirol aukerak lantzea. Klubek adierazi dutenez, kirola sustatzeko lanean dabilta, baina ez dute topatzen neskentzat erakargarria izango den giltzarria. Jardun mota bakoitzaren ezaugarriak balioesten hasi gabe, beharrezkoa izango da adin tarte horrentzako erakargarriak izango diren kirol jarduerak sortzeko moduak bilatzea.

Hiri ingurunean eta ingurune naturalean antolatu gabeko jarduera fisikoa egiten hasten dira adin horretatik aurrera; izan *skate park*aren edo mendiko bizikletaren bitartez, edo aldiari behingo kirol jardueretan parte hartuta. Musakolan skate park bat dago, eta Santa Barbarako parkean, berriz, skate modulu txiki bat. Nabarmenezkoa da udalerriaren ingurune naturalean geroz eta gehiago egiten dela mountain bike jarduera. Bestalde, nabarmenezkoa da Udalaren Kirol Zerbitzuak gazteen artean kirol jarduera sustatzeko egiten duen apustua. Gaur egun, honako jarduera hauek eskaintzen dituzte: Zunba Gazteak, Spinning Gazteak eta Aero Pilates Gazteak. Era honetako eskaintzak ugaltzen jarraitzea da asmoa.


KIROL SISTEMAN dituen eraginak

- Bigarren hezkuntzarako jauzian, kirol jardun ugari egiten da; hurrengo kategorian, berriz, nabarmen egiten du behera kopuruak.
- Gazteentzako jarduera eskaintza espezifikoa.

3.2.2 Kirola, helduaroan eta hirugarren adinean

15 urtetik gorakoek egiten duten kirol jardunari buruz Kirol Kontseilu Gorenak gauzatutako azken inkestaren arabera (2015), Euskadin egiten den kirolaren indizea % 53,3koa da, 2010eko inkestarekin alderatuta (% 42,9ko indizea), 10 puntu inguru gehiago. Balio hori Eusko Jaurlaritzak 2009an egindako inkestaren baliora hurbiltzen da. Eusko Jaurlaritzak egindako inkestaren arabera, kirol jardunaren indizea % 54koa zen. Ez dago Euskal Autonomia Erkidegoko jardunaren banaketarik, generoaren arabera. Alabaina, Espainian, kirola egiten duten gizonen kopurua % 59,8koa da; emakumeena, berriz, % 47,5koa.

22. irudia. 15 urtetik gorakoek egiten duten jardunaren indizea, Espainian zein Euskadin



Iturria: Kirol Kontseilu Gorenak kirol ohiturei buruz Espainian egindako inkesta (2015) eta Eusko Jaurlaritzak kirol ohiturei buruz EAEn egindako inkesta (2009).

Arrasaten helduentzat kirol eskaintza sustatzen duten kirol eragile nagusiak, hain zuzen, Udala (kiroldegiko udal eskaintzarekin), arlo pribatua eta kirol klubak dira. Etapa honetan ohikoa izaten da jarduera fisikoa eta kirola modu ez antolatuan egitea aire zabalean; gainera, gorantz doan joera da hori.

A. Udal eskaintza

Udalak helduentzat eta hirugarren adinekoentzat egiten duen eskaintza, bereziki, Musakola kiroldegikoa da. Instalazio honen eskaintza, zehazki, **osasunerako eta aisialdirako jarduera sustatzera dago bideratuta, eta kirol jardun ugari daude aukeran**. Instalazio horixe da Arrasaten kirol jardunerako gune nagusia. Hainbat gune ditu kirol federatua zein eskolakoa egiteko; alabaina, heldu gehienak bertara joaten dira harpidetza eginez edo aldian behingo sarrera bidez. Hauxe da eskaintza:


16. taula. Musakola kiroldegiko kirol jardueren eskaintza

Jarduerak	Hartzaileak
Fitness eta muskulazio gela	Helduak eta hirugarren adinekoak
Lehorreko jarduera gidatuak	Helduak eta hirugarren adinekoak
Ur jarduera gidatuak	Helduak eta hirugarren adinekoak
Igeriketa ikastaroak	Adin guztiak
Igeriketa librea	Helduak eta hirugarren adinekoak
Aisialdiko igeriketa	Adin guztiak
Erraketarako espazioak	Helduak eta hirugarren adinekoak
Aire zabaleko jarduerak (nordicwalk)	Helduak eta hirugarren adinekoak

Iturria: Geuk egina (2017).

Arrasateko kirol instalazio honetako harpidedunak asko dira: biztanleen % 24. Espainian kirol ohiturei buruz helduei egindako azken inkestaren emaitzei erreparatuz gero, argi ikusiko dugu kirol zentro publiko batean harpidetza eginda duten biztanleen ehunekoa % 11,6koa dela; Euskadin, aldiz, handiagoa da ehuneko hori: % 39, hain zuzen. Horrenbestez, harpidedun kopuru handi hori izateko arrazoi nagusia da **Udalak apustu handia egiten duela kirolari dagokionez, herritar guztientzako eskaintza irisgarri, zabala eta askotarikoa eginez.**

23. irudia. Kirol zentro publiko bateko harpidedunak diren herritarren ehunekoa



Iturria: Kirol Kontseilu Gorenak kirol ohiturei buruz Espainian egindako inkesta (2015), Kirolari eta jarduera fisikoari buruz Euskadin egindako azterlana (2017) eta Udalaren datuak (2017).

Nahiz eta biztanleriak egitura parekidea daukan gizonen eta emakumeen artean, harpidedunen artean gehiago dira gizonak emakumeak baino. Halere, kiroldegia eskaintza bi hartzaileentzako da, ezaugarri eta maila askotako eskaintza zabala baitauka.


Gaur egun, instalazioaren okupazioa % 86,5koa da, gehieneko okupazio mailarekin alderatuta. Nabarmenezkoak lirateke okupazioaren murrizketa honetan eragin nabarmena eduki ahal izan duten bi mugarri:

Alde batetik dugu baja kopuru handia izan zela berrikuntza eta mantentze lanetarako igerilekua itxita egon zen denboraldian. Tarte horretan jende askok utzi zion joateari, eta asko ez dira harrezkero itzuli.

Besta alde batetik, Aretxabaletako kiroldegiak daukan erakarpen indarra dugu. Kontuan izan behar dugu Musakolak zer kokagune daukan Arrasate bezalako morfologia lineala daukan udalerrian. Udalerrian muturreko hiri espazio batetik hurbil dago kokatuta Musakola; alegia, herritar ugarirengandik nahiko urrun (batez ere, biztanleria dentsitate handiko gune batzuetatik urrun). Herritar horietako gehienek autoa erabili behar izaten dute kiroldegira joateko, eta ez dute denbora tarte askoz handiagorik behar Aretxabaletako kiroldegira joateko. 2017ko otsailaren 23an, Aretxabaletako Ibarra kiroldegiko harpidedunak ziren 2.851 pertsonetatik 367 Arrasatekoak ziren (alegia, % 12,9).

Ezin dugu baieztatu Arrasateko instalazioetako harpidedunen kopurua Aretxabaletara joan direlako jaitsi denik, baina uler genezake badela biztanleria sektore bat hainbat zerbitzu eta aukera ikusten dituen Aretxabaletan, eta azkenean, hara joateko ohitura hartu duena.


24. irudia. Musakola kiroldegiko harpidedunen egitura



Iturria: Udalaren datuak (2017).

Harpidedunetz gainera, kirol jarduera espezifiketako ikastaroen bitartez ere eskura daiteke eskaintza. Kasu honetan, emakumeen partaidetza gizonezkoena baino handiagoa da; bereziki, egindako eskaintza motagatik: jarduera gidatuak eta emakumeen jarduerekin lotura handiagoa duten ikastaroak. Jardueretan izena emanda dute, zehazki, Musakola kiroldegiko harpidedunen % 15ek.


25. irudia. Musakola kiroldegiko jardueretako eta ikastaro osagarrietako partaidetza



Iturria: Udalaren datuak (2017).

Eskaintzen diren jardueren kopurua eta banaketa aintzat hartuz, ikus daiteke lehorreko jarduerak ur jarduerak baino pisu handiagoa dutela, nola partaidetzari dagokionez, hala ordu kopuruari dagokionez.

26. irudia. Musakola kiroldegiko jarduera kopurua eta partaidetza




Iturria: Udalaren datuak (2017).

KIROL SISTEMAN dituen eraginak

- Udalak apustu handia egin du guztiontzakoak izango diren kirol instalazio eta jardueretan.
- Udalaren kirol gunean harpidedun kopuru handia dago, jarduera eta zerbitzu ugari eskaintzen baitira; alabaina, azken urteotan, kopuruak behera egin du: instalazioa zaharkitu egin da eta Aretxabaletako kiroldegiak egiten dion lehia.
- Harpidedunen artean gehiago dira gizonak; jardueretan eta ikastaroetan izena emanda dauden artean, berriz, emakume gehiago daude.

B. Kirol klubek eta elkarteek egindako eskaintza

18 urtetik gorako biztanleen % 7 inguruk egiten dute kirol jarduera kirol klub eta elkarteetan. Elkarte horiek lehiarakoak izan daitezke, edo osasunari eta astialdiari begirakoak, inolako lehia helbururik gabeak.

27. irudia. Biztanle helduek klubetan duten partaidetzaren bilakaera (2014/2017)

Iturria: Geuk egina, kirol klubetan datuetan oinarrituta (2017).

Partaidetza, sexuari dagokionez, emakumeen artean baino handiagoa da gizonen artean. Partaidetza alde horren arrazoia da, bereziki, kirol mota horiek ohikoagoak direla gizonen artean.

17. taula. 18 urtetik gorakoentzako kirol eskaintza, klubetan

Klubak +18	Guztira	Emakumeak	Gizonak
Xakea	22		22
Atletismoa	7	1	6
Eskubaloia	31		31
Saskibaloia	33		33
Boccia	23		23
Txirrindularitza	82	1	81
Aire kirolak	21		21
Futbola	122	41	81
Mendia	871	223	648
Euskal pilota	2		2
Erraketa	14	3	11
Errugbia	29		29
Triatloia	49	2	47
Guztira	1.306	271	1.035

Iturria: Geuk egina, kirol klubuen datuetan oinarrituta (2017).

Dena den, kontuan hartu beharrekoa da federazioen lizentzia gehienak mendiko kirol erakundeei dagozkiela. Erakunde horiek astialdirakoak izan daitezke, osasunari begirakoak zein lehiarakoak. Sarri askotan, lizentziaren izapideak egiten dira, zehazki, lesio edo istripuren bat izanez gero aseguruia edukitzeko. Oro har, kirolaren arloan era horretako lizentzien kopurua gorantz doa, natur ingurunean egiten diren erresistentzia kirolen gorakadarekin lotuta; esaterako, triatloia, runninga edo mendiko bizikleta. Halere, kirol erakunde gehienek ohikoagoa den eskaintza dute helduentzat, eta 18-30 urtekoek parte hartzen dute, bereziki.

KIROL SISTEMAN dituen eraginak

- Kirol klubetan 18 urtetik gorakoentzako jardueretan batez ere gizonek parte hartzen dute.
- Mendizaletasuna da parte hartzaile gehien biltzen dituen jarduera, eta kirol sektorean gorantz doan joera da.

C. Eskaintza pribatua

Arestian aipatu dugun moduan, kirol zentro batzuek eskaintza pribatua egiten dute; bereziki, fitness eta borroka arteen jardura gidatuak. Kirol zentro horiek txikiak izaten dira, eta espazio espezializatuak izaten dituzte era horretako jardueretarako.


Nabarmentzekoa da ez dagoela zentro pribatu bakar bat ere erraketarako guneak dituen (tenis pistak eta padel pistak, bereziki), ez eta low cost edo cross fit zentrorik ere. Nolanahi ere, entrenamendu pertsonaleko zerbitzu batzuk identifikatu ditugu, nahiz ez duten loturarik kirol zentro espezifikoekin.

28. irudia. Gimnasio pribatuen mapa**D. Aire zabaleko jarduna**

Kirol sektorean, oro har, aire zabalean egiten den jardura fisikoaren gorakada hauteman da azken urteotan. Mendi ibiliak edo txirrindularitza, esaterako, egonkortu egin dira, eta gorantz egin dute nabarmen runningak, mendiko txirrindularitzak eta kirol modalitate berri batzuek: roller kirolak (skatea, monopatina, bmx), ultratrailek edo aire zabalean taldean egiten den entrenamendu fisikoak.

Kirol Kontseilu Gorenak kirol ohiturei buruz egindako inkestaren arabera, bestalde, herritarren % 45,9k aire zabalean egiten dute jardura fisikoa; Euskadin, berriz, % 48k.

29. irudia. Azken urtean kirola egin duten pertsonak, ingurunearen arabera: aire zabalean edo espazio itxietan



Iturria: Kirol Kontseilu Gorenak kirol ohiturei buruz Espainian egindako inkesta (2015).

Euskadin, bertako ingurune naturalagatik eta geografia menditsuagatik, tradizio historiko handia dauka kirola aire zabalean egiteak; bereziki, mendizaletasuna eta ur jarduerak (kostaldean, esaterako, surfa). Horiei aire zabalean (nola ingurune naturalean, hala hiri ingurunean) egiten diren beste kirol proposamen berri batzuk gehitu zaizkie. Azken urteetan, hiri aktiboak sustatzeko lana egiten da: kirola egiteko hirigintza eta hiri ingurune egokiak prestatuz eta bizi ohitura osasungarriak sustatuz.



Arrasate herrian eta eskualdeko geografia gorabeheratsuan, hainbat hiri ingurune eta ingurune natural daude, jarduera fisikoa eta kirola egitea bultzatzen dutenak, 3. aztergaian zehaztasun handiagoz ikusiko dugun bezala.


Era horretako kirol jardunari buruzko datuak ezagutzea lan nekeza da, non eta ez den egiten herritarren kirol ohiturei buruzko inkesta bat. Alabaina, agerikoa da 'kalea kiroltzen' ari dela, eta kirola egiteko gune bihurtzen ari dela. Teknologia berriei eta banakako kirol errendimendua monitorizatzeko kirol app-ei esker, aire zabalean kirola modu ez antolatuan egiteko erabiltzen diren gune nagusiak identifika daitezke. Oro har, talde txikitik edo banaka egiten da kirola hor. Irudi honetan, erabiltzaileek euren kirol jardunean erregistratzen dituzten ibilbideak daude jasota.

KIROL SISTEMAN dituen eraginak

- Hiri inguruneetan eta ingurune naturaletan egiten den antolatu gabeko kirol kopurua handitu egin da. Ezinbestekoa da ingurunea egokitzea eta erraztea.
- Arrasateko ingurune naturalari esker, aise egin daiteke kirola ingurune naturalean.

30. irudia. Kirol entrenamendurako aplikazioen erabiltzaileek *trackeatutako* running, mendi ibili eta txirrindularitza ibilbideak





Iturria: Runners eta Strava Sareak (2017).

3.3. 3. aztergaia. Herritarren premiak eta herriko kirol espazioak.

3.3.1. Kirol ekipamenduen ikuspegi orokorra

Arrasatek kirol ekipamendu eta espazioen sare zabala dauka inguruan. Eusko Jaurlaritzak kirol instalazioei buruz egindako erroldaren arabera, 39 kirol ekipamendu daude, eta, horrenbestez, guztira, jarduera fisikoa eta kirola egiteko 107 espazio daude. Espazio horiek hainbat jabetzatakoak dira. Udal jabetzako ekipamendu publikoak dira ugariak.


18. taula. Kirol ekipamendu eta espazioen jabetza eta kopurua

Jabetza	Ekipamendu kop.	Kirol espazioen kop.
Elkartena	1	1
Pribatua	8	18
Eskolakoa pribatua	6	15
Udalarena publikoa	20	62
Eskolakoa publikoa	4	11
Guztira, orokorrean	39	107

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren kirol instalazioen errolda (2017).

107 espazio horietatik % 86,0 ohiko espazioak dira, mota tradizionalei dagozkien espazioak: pistak, pabiloiak, pilotalekuak, etab. % 10,3 espazio bereziak dira, espezifikagoak, kirol bakoitzera egokitutako tamainak eta ezaugarriak dituztenak. Aldiz, % 3,7 lehorreko jardueretarako eremuak dira: jarduera fisikoa eta kirola egiteko euskarriak diren elementuak dituzten espazio naturalak edo espazio natural egokituak. Azken horien zenbaketa GR edo PR gisa ofizialki seinaleztatutako mendi ibilbideetara mugatu da, nahiz eta ingurune naturalean badauden kirola egiteko moduko beste ibilbide eta espazio batzuk ere. Bestalde, erroldan jasotako espazioen % 56,1 estaliak dira, eta horri esker, klima edozein delarik ere, kirola egin daiteke.

31. irudia. Arrasateko kirol espazioen ezaugarri orokorrak



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren kirol instalazioen errolda (2017).

Hurrengo taulan ikus daitekeen bezala, dauden kirol espazioak askotarikoak dira, eta hauek dira ugariak: aretoak (kiroldegia eta espezialitateak), pilotalekuak (arauzkoak eta neurri txikiagokoak) eta kirol pistak.

19. taula. Kirolerako espazio moten zerrenda, jabetzaren arabera


Kirolerako espazio motak	Publikoa	Eskolakoa publikoa	Eskolakoa pribatua	Elkarteena	Pribatua	Guztira, orokorrean
Atletismoa	4					4
Bolatokia	3					3
Seinaleztatutako bideak eta bidezidorrak	4					4
Zelaia	2				1	3
Bidegorria	1					1
Gune osasungarria	1					1
Pilotalekua	13		2			15
Pabiloia	2		1			3
Padela	2					2
Igerilekua	5				2	7
Kiroldegiko pista	4	5	4			13
Kiroldegiko pista hormaduna			2		1	3
Eskalada murrua	1	1				2
Skatea	2					2
Aretoa	10	5	6	1	14	36
Squasha	3					3
Tenisa	3					3
Mahai tenisa	2					2
Guztira, orokorrean	62	11	15	1	18	107


Iturria: Eusko Jaurlaritzaren kirol instalazioen errolda (2017).

Jabetza pribatuko kirol espazioei erreparatuta, ikusiko dugu gehienak aretoak direla; izan ere, gehin-gehienak jarduera gidatuetako, muskulazioko edo/eta borroka arteetako kirol zentroetakoak dira.

Orotara, udal jabetzakoak diren 20 kirol ekipamendu daude, 62 kirol espaziotan. Horietako % 77,4 ohiko espazioak dira; atzetik datoz espazio bereziak (% 16,1) eta jardueretarako eremuak (% 6,5). Udalerriko guztiak jabetza publikokoak dira. Kirol espazioen erdiak baino gehiago (% 51,6) estaliak dira.


32. irudia. Arrasateko kirol instalazio nagusiak



33. irudia. Udal jabetzakoak diren kirol espazioen ezaugarri orokorrak I

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren kirol instalazioen errolda (2017).

Kirol espazioetarako sarbidea librea eta doakoa izan daiteke edo sarbide kontrolatua duena; izan kuota bat ordainduta, izan talde jakin batzuentzako erabilera mugatuarekin. Udal jabetzakoak diren espazioen % 54,8k erabilera kontrolatua daukate, eta, horrenbestez, ezinbestekoa da espazioaren kudeaketa egitea. Gainerakoak erabilera libreko espazioak dira; gehienak egun osoan zehar irekita dauden kirol espazioak, udalerriko hainbat gunetan kokatuta daudenak.

34. irudia. Udal jabetzakoak diren kirol espazioen ezaugarri orokorrak II

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren kirol instalazioen errolda (2017).

Arrasateko Udalak lan egin du Udalaren kirol instalazio gehienetan irisgarritasuna bultzatzeko, eta, hartara, kirol inklusiboa sustatzeko. Kirol espazioen % 83,9 mugikortasun murriztua duten kirolarientzako egokituta daude. Egokitu gabeko espazioak, batez ere, jarduera eremuak eta espazio bereziak dira.

KIROL SISTEMAN dituen eraginak

- Tipologia askotako eta sarbide mota ugariako espazioen eskaintza zabala.
- Udalaren jabetzakoak diren kirol instalazioak dira gehienak. Baliabide kopuru handia erabili behar da horien mantentze eta kudeaketa lanetarako.
- Instalazioetako batzuk irisgarriak dira mugikortasun murriztua duten pertsonentzat.

3.3.2. Udalaren kirol instalazioen erabilera

Jarraian, Arrasateko kirol ekipamendu nagusien erabilera aztertuko dugu, erabiltzaileen kolektibo edo/eta adin taldeak kontuan hartuz, eta arratsaldeko orduan izaten den okupazio bolumena nabarmenduz (horixe izaten baita kirol espazioen okupazio goreneko garaia). Kalkulua egiteko 2016/2017 denboraldiko ordutegien koadrantea erabili dugu. Era berean, landa lanean identifikatu diren eta kontuan hartu beharreko jotako zenbait alderdi ere nabarmendu ditugu.

Musakolako kantzak

Musakola dugu Arrasateko kirol ekipamendu nagusietako bat (Uarkaperekin eta Iturriperekin batera). Arrasateko ekipamendu berezi honek, orotara, 32 kirol espazio ditu, honela banatuta: igerilekuak, pabiloia, padel pistak, pilotalekuak, squash pistak, kirol aretoak, zelaia, atletismo pista, mahai tenisa, eta, baita skate eremu bat ere. Antzinakoa delako zaharkituta dagoen instalazioa izateaz gainera, argiztapenarekin lotutako egiturazko arazoak ere baditu.

20. taula. Musakolako kantzaren erabiltzaileak diren kolektiboen tipologia

MUSAKOLAKO KANTXAK	ESKOLAREN ERABILERA	ESKOLA KIROLAK ERABILITA	KLUBEK ERABILITA	ALOKAIRUAK ETA HARPIDEDUNEN ERABILERA	DOAKO ERABILERA
Musakolako kantxa	✓	✓	✓	✓	
Antoñako kantxa	✓	✓	✓	✓	
Pilotaleku handia	✓	✓	✓	✓	
Pilotaleku txikia		✓		✓	
Squash 2			✓	✓	
Mojategiko futbol zelaia			✓	✓	
Mojategiko errugbi zelaia			✓	✓	
Mojategiko atletismo pista		✓	✓	✓	

Iturria: Geuk egina, Udalaren datuetan oinarrituta (2017).

Musakolako kantxa

- Musakolako kantxa, hain zuzen, ikastetxeek eskola orduetan erabiltzen duten espazioa da. Gainera, eskola kirola egiteko ere erabiltzen da, eta udalerriko klubek, harpidedunek eta pistak alokatzen dituztenek ere erabiltzen dute.
- Espazio honek okupazio finkoko % 74ko erabilera dauka, 16:30etik 21:45era.
- Kalkulatutako erabileratik ondoriozta daiteke denboraren % 54 Ointxe Arrasate saskibaloitaldeak erabiltzen duela, % 20 erreserbatuta egoten dela bazkideentzat, % 13 areto futbolerako eta % 13 eskola kirolerako.

Antoñako kantxa

- Musakolako kantxa bezalaxe, Antoñako kantxa ere ikastetxeek eskola orduetan erabiltzen duten espazioa da. Gainera, eskola kirola egiteko ere erabiltzen da, eta udalerriko klubek, harpidedunek eta pistak alokatzen dituztenek ere erabiltzen dute.
- Espazio honek okupazio finkoko % 100eko erabilera dauka, 16:30etik 21:20ra.
- Kalkulatutako erabileratik ondoriozta daiteke denboraren % 82 Ointxe Arrasate saskibaloitaldeak erabiltzen duela, % 14 eskola kirolerako erabiltzen dela, eta, azkenik, % 4 erreserbatuta egoten dela bazkideentzat eta instalazioko harpidedunentzat.

Pilotaleku handia

- Pilotaleku handia ikastetxeek eskola orduetan erabiltzen duten espazioa da. Gainera, eskola kirola egiteko ere erabiltzen da, eta udalerriko klubek, harpidedunek eta pistak alokatzen dituztenek ere erabiltzen dute.
- Espazio honek okupazio finkoko % 20ko erabilera dauka, 16:30etik 21:20ra. Ulertzen da erreserbatu gabe geratzen diren gainerako orduetan harpidedunek eta aldian behin alokatzen dutenek erabiliko dutela.
- Kalkulatutako erabileratik ondoriozta daiteke denboraren % 60 eskola kirolerako erabiltzen dela, eta % 40 erreserbatuta egoten dela atletismoa egiten dutenentzat.

Pilotaleku txikia

- Pilotaleku txikia, bestalde, eskola kirola egiteko erabiltzen da, bai eta harpidedunek eta pista alokatzen dutenek erabiltzeko ere.
- Espazio honek okupazio finkoko % 4ko erabilera dauka, 16:30etik 21:30era. Ulertzen da erreserbatu gabe geratzen diren gainerako orduetan harpidedunek eta aldian behin alokatzen dutenek erabiliko dutela.

Squasha

- Squash pista udalerriko klubek, harpidedunek eta alokatzen dutenek erabiltzen dute.
- Espazio honek okupazio finkoko % 20ko erabilera dauka, 16:30etik 21:30era. Ulertzen da erreserbatu gabe geratzen diren gainerako orduetan harpidedunek eta aldian behin alokatzen dutenek erabiliko dutela.

Mojategiko futbol zelaia

- Futbol zelaia udalerriko futbol taldeak erabiltzen du, bai eta harpidedunek eta zelaia alokatzen dutenek ere.
- Espazio honek okupazio finkoko % 90eko erabilera dauka, 16:30etik 21:30era.

Mojategiko errugbi zelaia

- Errugbi zelaia udalerriko klubek erabiltzen dute, bai eta harpidedunek eta zelaia alokatzen dutenek ere.
- Espazio honek okupazio finkoko % 46ko erabilera dauka, 16:30etik 21:30era.

Atletismo pista

- Atletismo pista eskola kirola egiteko erabiltzen da. Udalerriko atletismo taldeak ere erabiltzen du, bai eta harpidedunek eta instalazioa alokatzen dutenek ere.
- Espazio honek okupazio finkoko % 70eko erabilera dauka, 16:30etik 21:30era.

Herritarrek eta Arrasateko kirol eragileek Musakolako kirol espazioari buruz egindako balioespen kualitatiboari dagokionez (Mojategi eta Antoña barne), espazioaren balioespen negatiboa egin dutela nabarmendu behar da. Gipuzkoako bigarren kiroldegirik zaharrena denez, bere diseinuak, instalazio modernoagoekin alderatuta, zahartze zantzuak ditu diseinuari, programari eta funtzionaltasunari dagokienez. Bestalde, argiztapen kontuengatik kiroldegiari hainbat esku hartze egin behar izan zaizkionez, herritarrek eta kirol klubek balioespen negatibo ugari egin dizkiote.

Kirol gunea osatzen duten espazioen balioespen puntualetan sartu gabe, iritzi orokorrak erakusten du eraikinaren egoera orokorrari eta diseinuari kritika argia egiten dietela.

Partaidetza prozesuan, elkarrekin zein herritarrek balioespen negatibo ugari egin dituzte ia espazio guztiei buruz: harreralekua, aldagelak, aretoak, igerilekuak, zelaiak eta ia-ia gunea osatzen duten espazio guztiak.

Iturripeko kantxak

Iturripekoa dugu Arrasateko beste kirol instalazio nagusietako bat. Uribarri auzoko 9. zenbakian dago. Ekipamenduaren baitan 7 kirol espazio daude orotara: pabiloi bat, bi kirol pista, tenis pista bat, pilotaleku bat, lau kaleko atletismo pista bat eta futbol zelai txiki bat atletismo pistaren barnealdean.

21. taula. Iturripeko kantxen erabiltzaileak diren kolektiboen tipologia

ITURRIPEKO KANTXAK	ESKOLAREN ERABILERA	ESKOLA KIROLAK ERABILITA	KLUBEK ERABILITA	ALOKAIRUAK ETA HARPIDEDUNEN ERABILERA	DOAKO ERABILERA
Kantxa	✓	✓	✓	✓	
Pilotaleku handia	✓	✓		✓	✓
Pilotaleku txikia	✓	✓		✓	✓
Kanpoko kantxa	✓	✓		✓	✓
Tenis pistak	✓	✓		✓	✓
Futbol zelaia eta atletismo pista	✓	✓		✓	✓

Iturria: Geuk egina, Udalaren datuetan oinarrituta (2017).

Iturripeko kantxa

- Iturripeko kantxa, hain zuzen, ikastetxeek eskola orduetan erabiltzen duten espazioa da. Gainera, eskola kirola egiteko ere erabiltzen da, eta udalerriko klubek, harpidedunek eta pistak alokatzen dituztenek ere erabiltzen dute.
- Espazio honek okupazio finkoko % 100eko erabilera dauka, 16:45etik 22:15era.
- Kalkulatutako erabileratik ondoriozta daiteke denboraren % 41 Arrasate eskubaloia taldeak erabiltzen duela, % 32 Ointxe Arrasateko taldeak saskibaloian aritzeko, % 22 eskola kirolerako erabiltzen dela, eta % 5 Mondrate KE-k.

Kanpoko kantxa

- Espazio hauei buruzko erabilera daturik ez dugu, sarbide librekoak baitira, nahiz eta baden erreserbatzeko aukera, erabileran lehentasuna izateko.

Futbol zelaia eta atletismo pista

- Espazio hauei buruzko erabilera daturik ez dugu, sarbide librekoak baitira, nahiz eta baden erreserbatzeko aukera, erabileran lehentasuna izateko.

Pilotaleku handia, pilotaleku txikia eta tenis pistak

- Espazio hauei buruzko erabilera daturik ez dugu, sarbide librekoak baitira, nahiz eta baden erreserbatzeko aukera, erabileran lehentasuna izateko, eta beharrezkoa denean argiztapena edukitzeko.

Iturripeko gunearen balioespen kualitatiboari dagokionez, kirol elkarteek, ikastetxeek eta unibertsitateak iritzi negatiboa eman dute instalazioen mantentze eta kudeaketa lanari buruz.

Nahiz eta gunearen egitura positibo gisa balioetsi (salbuespenen bat izan ezik), erabiltzen duten pertsonen eta elkarteek kritika ugari egin dizkiote mantentze, garbiketa eta kudeaketa lanari.

Partaidetza prozesuko elkarriketetan, saioetan eta dinamiketan adierazitako ideia nagusia da, hain zuzen, Iturrieko guneak administrazio eta kudeaketa hobeak behar dituela, erabilerak antolatze eta mantentze eta garbiketa lan egokiak egingo direla bermatzeko.

Uarkape

Uarkape da Arrasateko pilotalekuaren kirol instalazio nagusia. 1999an inauguratu zuten. Kantxa nagusian, 1.000tik gora pertsonarentzako edukiera dauka. Otalora lizentziadunaren kaleko 10. zenbakiko ekipamendu honek 4 kirol espazio ditu: 3 pilotaleku eta eskalada murrubat.

22. taula. Uarkapeko kantxen erabiltzaileak diren kolektiboen tipologia

UARCAPE KANTXAK	ESKOLAREN ERABILERA	ESKOLA KIROLAK ERABILITA	KLUBEK ERABILITA	ALOKAIRUAK ETA HARPIDEDUNEN ERABILERA	DOAKO ERABILERA
Pilotalekua			✓	✓	
Pilotaleku txikia (1)			✓	✓	
Pilotaleku txikia (2)			✓	✓	
Jarduera aretoak				✓	

Iturria: Geuk egina, Udalaren datuetan oinarrituta (2017).

Pilotalekua

- Pilotalekua udalerriko klubek, harpidedunek eta alokatzen dutenek erabiltzen dute.
- Espazio honek okupazio finkoko % 85eko erabilera dauka, 16:00etatik 22:30era.
- Kalkulatutako erabileratik ondoriozta daiteke denboraren % 67 pilotan aritzeko erabiltzen dela, eta % 33 gimnastika egiteko.

Rebotilloa (1)

- Pilotalekua udalerriko klubek, harpidedunek eta alokatzen dutenek erabiltzen dute.
- Espazio honek okupazio finkoko % 60ko erabilera dauka, 16:30etik 22:00etara.
- Kalkulatutako erabileratik ondoriozta daiteke denboraren % 100 pilotan aritzeko erabiltzen dela.

Rebotilloa (2)

- Pilotalekua udalerriko klubek, harpidedunek eta alokatzen dutenek erabiltzen dute.
- Espazio honek okupazio finkoko % 20ko erabilera dauka, 16:30etik 21:30era.

- Kalkulatutako erabileratik ondoriozta daiteke denboraren % 100 pilotan aritzeko erabiltzen dela.

Rokodromoa


- Eskalada murraren erabilera daturik ez dugu, baina Debagoieneko Eskalada eskolak erabiltzen du.

Muskulazio gela eta bi jarduera gela

- Musakolan berriki ireki da muskulazio gela bat, eta K-Stretch eta jarduera hipopresiboak jarri dira martxan, kirol eskaintza udalerraren erdigunera hurbiltzeko asmoz.

Honako mapa honetan, kirol elkarte eta klubek udalerriko kirol instalazio nagusiei ematen dieten erabilera ikus dezakegu.

35. irudia. Arrasateko kirol klubek kirol instalazio nagusiei ematen dieten erabilera




Iturria:
Geuk
egina
(2017).

KIROL SISTEMAN dituen eraginak

- Musakola da udalerriko erreferentziazko instalazioa: zaharkitutako ekipamendua eta egiturazko arazoak dauzka.
- Biztanleria kolektibo ugarik erabiltzen dituzte instalazio gehienak.
- Ikastetxeek etekina ateratzen diete kirol gune nagusiei goizez.
- Goizez, espazioak alokatzeko aukera dago (enpresak, kirol turismoa, etab.).

3.3.4. Inguruneko kirol instalazioak


Nahiz eta hurbileko udalerriek ez eduki 20.000 baino biztanle gehiago, gehienek badute igerileku estalia, eta, horrenbestez, eurek asetzen dute euren biztanleen prestakuntza eskaera: izan eskola adineko kirol prestakuntza, izan osasunari begirako kirola.

36. irudia. Arrasatetik hurbil dauden igerileku estaliak

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren kirol instalazioen errola (2017).

Hurrengo orriko mapek Arrasateko eta Aretxabaletako instalazio nagusien eragin eremua erakusten digute, oinez edo bizikletaz. Ikus dezakegunez, eragin eremu hau batez ere udalerriarekin dator bat.

37. irudia. Arrasateko eta Aretxabaletako instalazio nagusien eragin eremua, oinez edo bizikletaz




Iturria: Geuk egina (2017).

3.3.4. Kirola eta jarduera fisikoa egiteko hiri ingurunea eta ingurune naturala

Arestian aipatu dugun moduan, aire zabaleko kirol jarduna (izan hiri ingurunean, izan ingurune naturalean) oso garrantzitsua da. Kirol instalazioen erroldan, tipologia horretako hainbat espazio daude, eta kirol eszenatokiak diren beste espazio batzuk ere hauteman dira. Arrasateko hiri ingurunearen baitan hainbat parke eta gune egoki daude kirola egin ahal izateko.

Parke bio-osasungarri bat ere badago, biztanle helduenek jarduera fisikoa egiteko aproposa. Garrantzitsua da kontuan hartzea Arrasaten 65 urtetik gorako 5.452 pertsona bizi direla gaur egun; alegia, biztanleen % 24,62. Demografia joera orokorrak betez gero, biztanleria ugartuz joango da, eta, horrenbestez, beharrezkoa izango da adin tarte horretara bideratutako instalazio eta zerbitzu gehiagotan inbertsioak egitea.

Interesgarria da 65 urtetik gora dituzten eta parkerako distantzia onargarria duten biztanleak aztertzea. Hurrengo irudian, parketik hainbat distantziatara bizi diren 65 urtetik gorako pertsonen ehunekoa ikus daiteke.

38. irudia. Parke bio-osasungarriaren inguruan bizi diren 65 urtetik gorako biztanleak

Iturria: Geuk egina (2017).

Bidegorriari dagokionez, gaur egun bidegorri zati handi samarra dago udalerrian zehar, bizikletan ibili ahal izateko, bai mugikortasuna hobetzeko, bai bizi ohitura osasungarriak sustatzeko.


Mugikortasun Planaren arabera, helburua da joan-etorri motorgabeak ugaltzea (bizikletan edo oinez egindakoak), eta udalerriko bidegorri sarea hobetzea.

Partaidetza prozesuan bildutako beste kontu bat da, hain zuzen, espazio publikoan gune estali gehiago edukitzeko premia, eguraldi kaskarra egiten duenean ere kirola egin ahal izateko.

Geroz eta ohikoagoa da, oro har, adin talde ugarentzako hiriko kirol espazioak ezartzea, eta, horregatik, kolektibo horientzako geroz eta eskaintza zabalagoa eta egokiagoa dago. 10-12 urte arteko haurrentzako parkeak, sokazko parkeak, barrazko parkeak, jarduera fisikoa egitekoak, etab. Arrasaten bada aukera gisa horretako espazioak ugaritzeko.

Arrasaten gutxi erabiliagatik gorantz doan beste ezaugarri bat da, hain zuzen, sakelako aplikazioak eta teknologia berriak erabiltzea hiri inguruneko eta ingurune naturaleko kirol espazioen berri zabaltzeko, zeharkako beste arlo batzuekin lotzeko aukerarekin; esaterako, turismoarekin, ingurumenarekin edo osasunarekin.

39. irudia. Arrasateko parkeak eta bidegorri sarea




Arrasatek ingurune natural bikaina dauka aire zabalean kirola egiteko, izan modu antolatuan, izan modu librean. Alde batetik, inguruan 3 mendi dituenek –Udalatx (1.117m), Murumendi (778m) eta Kurtzetxiki (532m)– bide ugari daude hainbat mailatako mendi ibiliak egiteko. Gainera, seinaleztatutako honako bidezidor hauek ere baditu:

23. taula. Arrasateko bidezidor ibilbideen zerrenda

Arrasateko bidezidor ibilbideak	
GR 121 Gipuzkoako bira	-
SL-GI 42 Kurtzetxikiko bira	Kurtzetxikiko Larragain gailurrera igotzeko eta handik jaisteko bidean, artadi zoragarri bat, berreskuratutako elurgune bat eta Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako mendi ezagunen panoramika eder bat ikusiko ditugu.
PR-GI 96 Udala-Besaide	Udalatx mendiaren magalean zehar doan bidea da, artadi aberats baten erditik, bi bidezidorren bidez Udala eta Besaide lotzen dituela.
PR-GI 91 Arrasate-Bedoña-Arrasate	Zaldibar inguruan hasten da ibilbidea, eta Oñatiko Zubillaga auzorantz doa; zati batean Errege Bide zaharretik, eta, ondoren, Urkulurantz, Bedoñaren behe eremura iristeko. Ondoren, Bedoña auzora igo, eta San Andresera jaisten da.
PR-GI 106 Arrasate-Arantzazu erromesen bidea.	Arrasateko erromesek erabiltzen dute bide hau urtero-urtero iraileko bigarren igandean Arantzazuko santutegira joateko. Goizean goiz abiatzen dira, eta goiz erdian iristen dira Arantzazura. Urkuluko urtegitik aurrera, Eskoriatzako eta Aretxabaletako erromesen bidearekin bat egiten du.
Ignaziotar bidea	Ignazio Loiolakoaren jaiotze etxetik abiatzen da (Azpeitiko dorretxe bat), eta Manresan “San Ignazioren Koba” izenez ezagutzen den tokiraino doa (Montserrateko monasteriotik hurbil, Katalunian). Pixkanaka, ibilbide hau tokiko erromesen erakarpen turistiko bihurtzen ari da, bai eta atzerriko turisten motor ere.

Iturria: Geuk egina, hainbat iturri baliatuta (2017).

40. irudia. Arrasateko inguruko bidezidorren sarea




Nabarmentzekoa da Turismo eta Ingurumen Arloa ibilbide eta bidezidor berriak biltzea ari dela sustatzen, aurreko bidezidorren mapan ikus dezakegun bezala.

Ikastetxeen kanpoaldeko kirol instalazioak eta jolastokiak ere oso baliabide interesgarriak dira eskualdeko eta auzoetako dinamizazioa bultzatzeko. Duela ez askora arte, espazio horiek gutxi erabilitako baliabideak ziren, eskola ordutegitik kanpo itxita egoten baitziren. Duela urte batzuetatik hona, berriz, geroz eta gehiago dira ikastetxeekin hitzarmenak egiten dituzten udalak, espazio horiek irekita egon daitezen eskola ordutegitik kanpo ere, eta, era horretan, herritarrek jardura egiteko baliabide bihurtu dira. Arrasatek neurri hau hitzartu zuen duela urte batzuk ikastetxeekin. Beraz, herritarren bizimodu aktiboa sustatzeko espazioen sare bat dauka.

KIROL SISTEMAN dituen eraginak

- Hurbileko espazio irisgarri eta estaliak eskatzen dira.
- Osasunarekin lotutako hiri espazio gutxi daude, ez askotarikoak gainera. Gehienak adineko jendeari zuzendutakoak dira, baina ez da asetzen eskaera guztia.
- Jolastoki irekiak herritarren eskura egongo diren espazio gisa erabiltzea.
- Kirol jarduna egiteko hiria geroz eta gehiago erabiltzeko joera dago.
- Ingurune bikaina dugu naturan kirol jarduna egiteko eta turismo aktiborako.
- Naturan egiteko turismo aktiboa sustatzeko lehenengo ekintzak egin dira turismoa eta ingurumena sustatzeko arlotik.
- Arrasateko hiri ingurunean eta ingurune naturalean kirola egiteko aukerak dinamizatzeko eta komunikatzeko maila teknologiko eskasa.

41. irudia. Arrasateko ikastetxeak**3.4. 4. aztergaia. Kirol ekitaldiak eta kirol turismoaren ahalmena****3.4.1. Arrasateko kirol ekitaldiak**

Kirol ekitaldiak elementu garrantzitsuak dira zeinahi kirol sistemarako. Horiei esker, herritarrek jarduera fisikoa eta kirola egin dezakete; gainera, aisialdirako ikuskizuna izateaz gainera, erakarpen turistikorako eta lurralde baten marka egonkortzeko elementua ere badira. Kirol ekimen mota ugari daude, ugariak diren bezala horien hartzaileak eta helburuak ere. Hala, beharrezkoa da udal estrategia bat definitzea, ekitaldiak antolatzeke eta babesteko modua zehazteko.

Gaur egun, Arrasatek jarduera eskaintza zehatz bat dauka urte osoan zehar. Jarduera horiek mota askotakoak dira, eta kirol eragileek eurek antolatzen dituzte; batez ere, Kirol Arloak eta kirol klubek.

24. taula. Arrasateko kirol ekitaldien zerrenda

Hilabetea	KIROL EKITALDIAK
URTARRILA	ESKI ALPETARREKO IRTEERAK
OTSAILA	ESKI ALPETARREKO IRTEERAK
MARTXOA	PARAPENTEKO DISTANTZIA OPENA
	ZIKLOTURISTA IRTEERAK
APIRILA	ZIKLOTURISTA IRTEERAK
	ARRASATE-UDALATX MENDI LASTERKETA
	ESKI-ALPEAK
MAIATZA	ZIKLOTURISTA IRTEERAK
	MENDI HAMABOSTALDIA
	BTT IRTEERA-SAN ISIDRO
	GIMNASTIKA ERRITMIKOAREN EGUNA
EKAINA	ZIKLOTURISTA IRTEERAK
	NAZIOARTEKO ZAZPINAKAKO ERRUGBI 14 TOPAKETA
	AIBA MENDI MARTXA
	PILOTA PARTIDA - PROFESIONALA - FEDE
	KIROLA KALERA EGUNA + KIROL SARIAK
	BORROKA ARTEEN EGUNA
UZTAILA	ZIKLOTURISTA IRTEERAK
	CAMPUSAK
IRAILA	ZIKLOTURISTA IRTEERAK
	PITXI MEMORIALA - ESKUBALOIA
	ENDURO TXAPELKETA
	BESAIDE EGUNA
URRIA	ZIKLOTURISTA IRTEERAK
	TAFYD GAUEKO KROSA
	ARRASATE-OÑATI LASTERKETA
	SQUASH CLINIC
	MONDRABIKE
	ARKU TIRAKETA JARDUNALDIA
AZAROA	TENIS TXAPELKETA
ABENDUA	TENIS TXAPELKETA
	TXELIS TXAPELKETA-FUTBOLA
	XAKE ARRASATE HIRIA
	KROSS SANTAMAS
	PILOTA PARTIDA - PROFESIONALA - FEDE
	SASKIBALOI TXAPELKETA

Iturria: Geuk egina, landa lanean oinarrituta (2017).

Espazio publikoan egiten diren kirol ekitaldien kopurua gorantz doanez, ezinbestekoa da espazio publikoak erabiltzeko baimenak emateko sistema berrantolatzea. Nola kirol eragileekin, hala espazio publikoaren kudeaketaz arduratzen den arloarekin izandako elkarriketetan, argi ikusi da kirol ekitaldiak antolatzeko espazio eta bide publikoak, bai eta materialak eta giza baliabideak ere, erreserbatzeko protokolo bat finkatzeko premia dagoela.

3.4.2. Kirol ekimenek turismo sustatzaile gisa duten eragina

Kirola oso tresna baliagarria da ekonomia sortzeko; izan kirol turismoaren bidez, izan lanpostuak sortuz.

Kirol ekimen eta zerbitzuak kirol turismoa erakartzeko elementu garrantzitsuak dira. Bidaiaren arrazoi nagusia kirol edo jarduera fisiko motaren bat egitea da; esaterako, herrialde edo hiri bat bisitatzea, lehiaketaren bat edo kirol ekimenen bat bertatik bertara ezagutzeko. Espainiako Mugako turismo mugimenduei buruzko 2014ko inkestaren arabera, atzerriko 2,5 milioi turista inguru doaz urtero Espainiara, eta kirola izaten dute euren joan-etorrietarako arrazoi nagusia.

Turismo mota horren baitan sartzen dira, halaber, gaur egun dauden txapelketa handietan parte hartzeko bidaiatzen duten pertsonak; esate baterako, maratobietan parte hartzen duten korrikalariak. Urtetik urtera, geroz eta gehiago dira euren hiri edo herrialdetik kanpora bidaiatzen dutenak, maratoi erdia edo 42 kilometro mitikoak korritzeko; izan urtero-urtero inskripzio kopurua betetzen duen New Yorkeko maratoi ezaguna edo zinez garrantzitsuak diren beste batzuk ere (Bostongoa, Pariskoa, Berlingoa edo Tokiokoa).

Arlo honetan lan egiteko beharrezkoa da kirol ekimenen lurralde estrategia bat finkatzea, lortu beharreko helburu espezifiko batzuk zehaztuz. Garrantzitsua da, halaber, estrategia hori lurraldearen gaitasunekin eta ezaugarriekin bat etorritzat diseinatzea, ekimen handiak sortzeko inolako premiarik gabe. Izan ere, horiek ez badira estrategiaren ildoaren baitakoak, eragin positiboak baino gehiago negatiboak ekar baititzakete.

Gaur egun, Arrasatek ez dauka arlo horretako inolako estrategiarik, eta urtean zehar herrian egiten diren ekimenetarako helburu zehatzik ere ez du finkatuta.

Kirol ekimen guztiek behar dute aurrekontua gauzatu ahal izateko. Horregatik, ohikoa izaten da babesa eta finantzaketa bilatzeko estrategiak baliatzea. Azken urteotan, gainera, testuinguru ekonomiko konplexua eratu da. Lankidetzat mota horrek dakar, hain zuzen, lurraldean jarduera ekonomikoa sortzea.

Ez dugu ahaztu behar, dena den, kirola dela gazteak lan munduan txertatzeko baliagarria den sektore nagusietako bat: kirol klubetan entrenatzaile jarduten dute, eskolako haurrentzako zein helduentzako kirol eskaintzarako kirol teknikari ere bai, eta baita udako campusetako begirale gisa edo kirol ekimenak antolatzen borondatez edo ordainsari truke parte hartuz ere.

KIROL SISTEMAN dituen eraginak

- Kirol eragile ugari urtean zehar antolatutako kirol ekimenen kopuruak goranzko joera du.
- Espazio publikoa erabiltzeko eta gauzatu beharreko prozesuetarako baimenen protokolo garbia finkatzeko premia.
- Ez dago ekimenen helburuari eta herritarrengan edo/eta turismoan duten eraginari buruzko estrategia definiturik.

3.5. 5. aztergaia. Gizarte irisgarritasuna

Gizarte garaikideen barneko gizarte eta kultura taldeen askotarikotasuna geroz eta agerikoagoa den errealitatea da. **Kirol jarduera fisikoa** gizarte loturen bideratzaile garrantzitsua da, bai eta aritzen direnen kultura zein gizarte desberdintasunak leuntzen dituen ere. Hala, **arrazoi fisiko, psikiko, kultural zein ekonomikoak direla tarteko gizartean baztertuak izateko arriskuan dauden kolektiboak gizarteratzeko modu garrantzitsua da.** Horren adibide onak ditugu egin diren azterlan ugariak, zeinek zehazten duten gizartean baztertuta bizi diren kolektiboak gizarteratzeko oso bide gomendagarria dela kirola. Nolanahi ere den, azterlan horiek hizpide hartuta, nabarmentzekoa da horietan azpimarratzen dela gizarte zein kultura testuinguruan kokatutako jarduerak proposatzeko premia dagoela hainbat taldetan.

3.5.1. Dibertsitate funtzionala

Dibertsitate funtzional motaren bat duten pertsonen (psikikoak zein fisikoak) zailtasunak izaten dituzte zeinahi udalerritako ohiko eskaintzan jarduera fisikoa egiteko. Administrazio publikoak, kirol erakundeek eta dibertsitate funtzionala duten pertsonen elkarteek elkarrekin lan egitea funtsezkoa da eskubide unibertsal hori bermatzeko.

"Bartzelona hirian desgaitasunak dituzten pertsonen kirol ohiturei buruzko inkesta (2003-2004)" izeneko inkestatik, hain zuzen, kolektibo horretako kideek kirola egiteko izaten dituzten motibazioak ondoriozta daitezke, bai eta hasteko izaten dituzten oztopo nagusiak ere.

42. irudia. Kirola egiteko oztopoak eta motibazioak

Alderdi positiboak	Alderdi negatiboak
- Osasuna hobetzen da - Gogobetetze pertsonala - Auto-hobekuntza - Gizarte harremanak - Atsegina	- Denbora gabezia - Instalazioen barneko joan-etorriak - Instalazioen egokitzapen gabezia - Norbere desgaitasuna eta osasuna

Iturria: Bartzelona hirian desgaitasunak dituzten pertsonen kirol ohiturei buruzko inkesta (2004).

Kirol instalazioen diseinua eta kirola egiteko zenbait elementu egokitzeko premia, zehazki, kolektibo horiei kirola egiten hastea zailtzen dieten oztopo batzuk dira, eta ezinbestekoa da eragile guztiek horiek lantzea. Nahiz eta kiroldegiak irisgarritasun baldintza guztiak bete, herritarren partaidetza prozesuan, hainbat kexa eta gabeziaren berri eman dute dibertsitate funtzionala duten pertsonen eta horien inguruko pertsonen.

Klubetako jarduerari dagokionez, Dordoka Kirol Elkartek kirol egokitan oinarritutako jarduerak egiteko aukera ematen du udalerrian bertan.

3.5.2. Gizartean baztertuak izateko arriskua

Azken urteotako errealitate ekonomiko orokorra eta herritarrek oro har izan duten egoera konplexuak izan dira. Horren ondorioz, ugaltu egin dira arrazoi ekonomikoak direla tarteko gizartean baztertuak izateko arriskuan dauden familiak. Pertsona horiek zailtasun handiagoa izaten dute kirol antolatua egiteko, eta horrek desorekak dakartza, bereziki, eskola garaian. Hauek dira, hain justu, zailtasun ekonomikoak dituzten pertsonen, iritsi berri diren eta baliabide ekonomiko urriak dituzten pertsonen, edo gizarteratze prozesuan dabilen pertsonen kirol jarduera fisikoa egiteko dituzten oztopo nagusiak:

- **Oztopo ekonomikoak:** instalazioaren kostua, klubetako edo/eta erakundeetako kuotak, bai eta federazio fitxen kuotak ere, eta ekipamendu ireki, kontrolatu eta doakoak ez egotea.
- **Gizarte oztopoak:** informazio gabezia, kirol jarduera eta jarduera fisiko mota eta modalitate guztietara egokitutako espazio publikorik ez egotea, denbora gabezia, aisialdia modu sedentarioan igarotzeko aukerak, generoa, naziotasuna, gizarte baldintza, eta hezitzaile edo entrenatzaile gabezia.
- **Kultura oztopoak:** autobazterketa, osasunari begirako kultura desberdintasunak, denbora librearen erabilera, norbere gorputzaren kultura, jarduera fisikoa eta osasuna kontzeptua desberdin ulertzea, kirol modalitate urriko eskaintza.
- **Oztopo instituzionalak:** sistema federatibora sartzeko zailtasunak, kirol instalazio publikoetara sartzeko arazoak, eta legedia murriztailea.

Oztopo ekonomikoei dagokienez, ikus daiteke kirol instalazioetan sartzeko prezioa merkeagoa dela familia harpidedunentzat eta prezio bereziak daudela federatuentzat.

25. taula. Musakolako kantxetara sartzeko prezioak

ABONUAK	Hilekoa	Urtekoa	Urtekoa PLUS
3-17 urte	11,56	80,3	120,6
18tik gora	19,38	134,75	202,1
Familia abonua	30,93	215,15	322,75
Federatuak	8,05 € / 13,50 €		
15-40 €-ko jarduera gidatuak, jardueraren arabera eta astean behin edo bitan eginda.			

Iturria: Udalaren datuak (2017).

Alabaina, badaude sartu ezin diren pertsonak. Horregatik, laguntzak edo/eta hobari ekonomikoak ematen zaizkie diru sarrera txikiagoak dituzten pertsonei, erabilgarri dagoen errenta pertsonalaren bilakaeran eta Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren onuradunak diren pertsonen ehunekoan ikus dezakegun bezalaxe. Kirol Zerbitzuak zuzenean egiten ditu diru laguntzen izapideak, eta horrek asko errazten die kudeaketa lana herritarrei.

26. taula. Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten pertsonak (herritarren %)

2003	2004	2005	2006	2007	2008	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
2,40	2,52	2,33	3,07	2,91	3,19	11,61	14,75	15,74	18,23	22,49	23,70	24,42

Iturria: Eustat (2017).

27. taula. Erabilgarri dagoen errenta pertsonala (€)

2001	2003	2006	2009	2011	2013	2014
11.758,00	12.108,00	14.533,00	17.411,00	16.942,00	16.023,00	15.643,00

Iturria: Eustat (2017).

3.5.3. Adineko jendea

Azkenik, adineko pertsonen kolektiboa tradizioz oso aktiboa ez den biztanleria sektorea da. Azkenaldiko gizarte aldaketek eta biztanleria sektore horretara bideratutako udal politikak ekarri dute adin tarte horretako pertsonek egiten duten jarduera fisikoaren eta kirolaren indizeek gora egitea. Etorkizuneko joera izango da kolektibo honek jarduera gehiago egitea, biztanleria kopurua gorantz doalako eta aurretiko etapetako pertsonak kirola egiteko ohitura barneratzen ari direlako.

28. taula. Zahartze indizea: 65 urteko eta hortik gorako biztanleria (%)

2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
18,15	18,51	18,93	19,38	19,83	19,93	20,26	20,92	21,45	21,95	22,23	22,72	23,28	23,73

Iturria: Eustat (2017).

Halere, egon badaude adineko pertsonen egiten duten jarduera fisikoan eta kirolean zuzenean eragina duten oztopo batzuk.

- Gorputzaren irudiari begira gizarteak duen eragina, gorputza gizarteko gainerakoen iritzien edo/eta pentsamenduen helburu izanda.
- Faktore pertsonalak; esaterako, nekea edo borondate gabezia, eta horri gehitu behar zaio denbora gabezia eta gehiegizko betebeharrak eta erantzukizunak, adin tarte batzuetako faktore komun gisa.
- Bestalde, gehitu behar da pertsona bakoitzaren adinak, osasunak edo beste faktore batzuek ere erabakitzen dutela jarduera fisikoa edo kirola egiteko ala ez egiteko asmoa.
- Badaude oztopoak diren beste elementu batzuk ere; esaterako, teknologia berrien erabilera eta horiekiko mendekotasuna, edo landa bizimodutik hiri bizimodurako aldaketa. Elementu horiek, gutxi-asko, eragina izaten dute sedentarismoan eta biztanleen bizi kalitatean.

Adin talde horretara bideratutako mantentze gimnastikako jarduerak ere badaude. Bestalde, Osakidetzarekin lankidetzan, erorikoak saihesteko tailerrak antolatzen dira. Era honetako tailerren eskaintza espezifikoak ugaltzen joatea da asmoa.

KIROL SISTEMAN dituen eraginak

- Azken urteotan laguntzak ugaritu dira, per capita errentaren batez bestekoa murriztu egin delako.
- Udal instalazioetarako askotariko sarbideak, oro har prezio onargarriekin. Iritzi kontrajarriak daudenez, tipologia berrikusteko eskaera.
- Adineko pertsonentzako eskaintza ugaritzeko borondatea. Garrantzitsua da, biztanleriaren zahartzea kontuan hartuta.
- Adineko pertsonen hurbileko espazioak eta jarduerak behar dituzte.

3.6. 6. aztergaia. Kirola eta emakumea

Beste gizarte arlo batzuetan gertatu den bezalaxe, kirol arloan emakumeek izan duten parte hartzea nabarmen igo da azken hamarkadetan. Prozesu honetan, emakumeek oztopo ugari egin behar izan diete aurre, esplizitu zein inplizituei, bai eta gizarte eta kultura estereotipoei ere. Nahiz eta emakumeen presentzia handitzen ari den, gaur egun, oraindik ere, kirol arloko modalitate guztietan zein egituretan duten parte hartzea gizonena baino txikiagoa da.

Horregatik, erakundeek proposatu dute kirol arloan emakumeen parte hartzea handitzeko politika espezifikoak martxan jartzea, eta halaxe jaso dute azken urteotan garatutako hainbat arautan. Adibidez, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak dioenez, besteak beste, “euskal administrazio publikoek beharrezko neurriak hartu behar dituzte, kirol jarduera guztietan emakumeen eta gizonen tratu eta aukera berdintasuna bermatzeko”, eta, hala, emakumeen ahalduntzea eta emakumeek egindako kirolari dagokionez balio aldaketa bat sustatzeko. Bide beretik, garrantzitsua da emakumeen jarduna sustatzea eta aintzatestea, bai eta kirol modalitate jakin batzuetan gizonak zein emakumeak aritzea galarazten duten hainbat traba gainditzea ere.

Horrekin lotuta, aipatutako legeak jasotzen duenez, administrazio publikoek “emakumeen zein gizonen kirol jardueren babesletza sustatuko dute, emakumeen parte hartzea txikiena den modalitateetan”, eta, bide beretik, “handitu egingo dituzte batez ere emakumeek egiten dituzten kirol modalitateetara bideratutako laguntza publikoak”.

3.6.1.- Eskola kirola

Eskola kirolaren analisia benetan garrantzitsua da; izan ere, oro har, kirolean hastea dakar, eta moduren batean, neska-mutilek kirolarekin duten harremana finkatzen du.

Arrasateren kasuan, 3.2.1. puntuan zehaztu dugun moduan, hauek dira udalerriko kirol eskolako eragile nagusiak: ikastetxeak eta Udala, Leintz Eskola Kirolaren (LEK) bitartez, kirol klubak eta kiroldegiko eskaintza.

LEKek eskainitako jarduerak 6-14 urte arteko haurrei zuzendutakoak dira, lau taldetan banatuta:

- **Kirol jolasak:** (6-8 urte edo Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailak). Lehenengo etapa honetan, haurrek bi saio izaten dituzte astean, eta jarduera batzuk asteburuetan.
- **Multikirola:** (8-10 urte edo Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailak). Etapa honetan, LEKen memoriaren arabera, ikasleek bi programa aukera ditzakete: lehiaketa bidezko programa edo aisialdiko kirol programa.
- **Multikirola** (10-12 urte edo Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak). Aurreko taldean bezalaxe, haurrek bi programaren artean aukeratu ahal izango dute: lehiaketa bidezko programa edo aisialdiko kirol programa.

- **Lehenengo espezializazioa:** (12-14 urte edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailak). Etapa honetan, haurrek kirol bat edo pare bat aukeratu beharko dituzte, eta denboraldi osoan jokatu dute horietan.

Jarraian, eskaintza eta parte hartzea aztertuko ditugu, hiru ataletan banatuta (14-17 urte arteko gazteak ere kontuan hartuta). Adin tarte hori oso garrantzitsua da, kirola uzteari buruz aztertu ahal izateko.

Lehen Hezkuntza: 6-12 urte (LH1-LH6)

Adin tarte honetan, benjaminurrekoen, benjaminen eta kimuen kategorietako neska-mutilak daude.

12. taulan ikus dezakegun moduan, nesken parte hartzearen ehunekoa mutilena baino dezente txikiagoa da lehenengo bi adin tarteetan; izan ere, 6-8 adin tartean parte hartzaileen % 33,3 dira, eta 8-10 adin tartean, % 29. Ehunekoa parekatuagoa dago kimuen kategoriako neska-mutilen artean: neskak dira parte hartzaileen % 41,5. Dena den, aldaketa hau ez da nesken parte hartzeak gora egin duelako, baizik eta adin tarte horretan eskola kirola egiten duten mutilen kopuruak behera egiten duelako; beharbada, kategoria horretan modalitate federatu batzuetan hasten direlako.

Adin tarte horretan eskola kirolaren programan lantzen diren kirol modalitateei dagokienez, lehenengo etapan, 6-8 urte arteko neska-mutilek jolas aldatuen programa lantzen dute.

Hurrengo bi etapetan, berriz, askotarikoagoa da eskaintza. 8-10 eta 10-12 urte arteko haurrek bi programatan izena emateko aukera dute: “Lehiaketazko kirola” eta “aisialdiko jarduerak”. Astean bi saio izaten dituzte, eta larunbat goizetan lehiaketak. Lehenengo ibilbidea aukeratzen duten pertsonen kirol ugari landuko dituzte urte osoan zehar: pilota, areto futbola, minisaskibaloia, minieskubaloia, atletismoa, errugbia, 3x3 saskibaloia, erraketa bidezko kirolak, txirrindularitza eta naturako jolasak.

Beste ibilbidea aukeratzen dutenek, berriz, honako hauetan dihardute: jolas kooperatiboak, badmintona, pilota, eskujokoak, patin hockeya, patinatzea, beisbola, kirol egokitua, zunba, 3x3 saskibaloia eta naturako jolasak.

Aztertutako datuen arabera (13. taula), 6-12 urte arteko haurren % 25ek klubetan egiten dute eskola kirola. Ehunekoak aldatuz doaz kategorien eta sexuen arabera. Oro har, adinean aurrera egin ahala, parte hartzaileen kopuruak gora egiten du. Alabaina, sexuen arteko aldeari erreparatzen badiogu, nabarmentzekoa da mutilen kasuan igoera nabarmena izaten dela benjaminetatik kimuen kategoriarako aldaketan; nesken artean, berriz, kategoria horietan parte hartzaileen kopuruak behera egiten du.

Bigarren Hezkuntzako 1. zikloa: 12-14 urte (DBH1-DBH2)

Adin tarte hau bereziki interesgarria da generoaren analisiari dagokionez; izan ere, azterlan ugariren arabera, eskolako etapa aldaketa honetan batez ere neskek kirola egiteari uzten diote. LEKen datuen arabera, etapa honetan (haurren kategorian) adin tarte horretako biztanleen % 63,6k egiten dute kirola: % 49,9 mutilak dira, eta % 50,1, neskak. Horrenbestez, ehunekoak parekatuak dira.

Nolanahi ere den, eskaintza sustatzen duten kirol eragileak aztertzean ikusi ditugu alderik garrantzitsuenak.

14. taulan ikus dezakegun bezala, orokorrean mutilen eta nesken ehunekoak antzekoak badira ere, ez da gauza bera gertatzen eskola kiroleko programan edo klubaren eskaintzan mutilek zein neskek duten parte hartzea aztertzean. Neskak dira LEKeko parte hartzaileen % 62; klubetan, berriz, nesken ehunekoak behera egiten du (% 42,2). Horrenbestez, agerikoa da neskek eskola kirola egiten jarraitzen duten bitartean, mutilek klubaren eskaintzara jotzen dutela gehiago. Eta hala gertatzen da, neurri batean behintzat, eskola kirolaren ezaugarriengatik: eskola kirola libreagoa da, eta ez kirol federatua bezain lehiakorra.

Garrantzitsua da, halaber, adin horretan mutilek zein neskek aukeratzen dituzten kirol modalitateak aztertzea. Arestian aipatu dugun moduan, etapa honetan (lehenengo espezializazioa izenekoa), denboraldi osoan zehar jokatzeko kirol bat ala bi aukeratu behar dira. Aurreko denboraldiko LEKen memorian, mutilei zein neskei zuzendutako eskaintza dago jasota.

Taldeko kirolei dagokionez, saskibaloiko bost talde (4 neskenak eta mutilen 1), eskubaloiko talde bat (mutilena) eta areto futboleko beste bat (mutilena) osatu dira. Jarduera fisikoa bakarka egiteko, honako hauek eskaini ditu LEKek: igeriketa, atletismoa, tenisa, zunba eta spinninga. Nabarmenezkoa da azken bi aukera horiek bereziki emakumetuta daudela: zunban guztiak dira neskak (14); spinningean, berriz, soilik 2 mutilek parte hartzen dute (11 parte hartzaile). Horrenbestez, agerikoa da modalitatearen arabera bereizketa bat gertatzen dela.

Klubetan egiten den jardunari dagokionez, haurren kategoriako kirolariak daude honako modalitate hauetan: atletismoa, mendia, judoa, eskubaloia, saskibaloia, gimnastika, futbola, pilota, errugbia eta xakea.

Dena den, modalitate bakoitzean neskek zein mutilek duten parte hartzea aztertuz gero, alde nabarmenak hautemango ditugu. Neskak dira ugariak atletismoan, saskibaloian eta gimnastikan; alabaina, ez dago neska bakar bat ere eskubaloian, futbolean, pilotan edo xakean. Horrekin lotuta, deigarria da futbolaren kasua. Beheko kategorietan futbol talde mistoak daude, baina haurren kategorian ez dago nesken futbol talde bakar bat ere. Mutilei dagokionez, gimnastika da mutil bakar bat ere ez daukan modalitate bakarra.

Beraz, nabarmenezkoa da genero estereotipoek gidatuta egiten dela kirol modalitateen aukeraketa; horregatik, gimnastika neskek baino ez dute egiten, eta futbolean ez dago neska bakar bat ere. Hori guztia traba handia da berdintasunean oinarritutako kirola egiteko.

14 urtetik aurrera.

14-17 urtekoentzako eskaintza zehazki eskola kirolekoa ez den arren, atal honetan landuko dugu adin tarte hau ere, neska-mutilek lotura hertsia izaten baitute oraindik herriko ikastetxeekin, eta horrek badu eragina jardunean.

Eskola kiroleko eskaintza 14 urterekin amaitzen da; horregatik, adin horretatik aurrera, kirola egin nahi duten neska-mutilek klubetara, Udalaren kirol eskaintzara edo eragile pribatuetara jo beharko dute.

Bertako klubek emandako datuak azertu ondoren, nabarmentzekoa da alde handia dagoela gizonen eta emakumeen parte hartzean. Hala, 385 gizonek egiten dute kirola udalerriko klubetan, eta 173 emakumek baino ez. Azpimarratzekoa da, halaber, Europan egindako azterlan ugaritan, agerian geratu dela 13-15 urte artean neskek egiten duten jarduera fisiko kopuruak izugarri egiten duela behera. Horretan, jakina, eragina dute neskei zein mutilei finkatzen zaizkien bizi ibilbideek eta estereotipoek: nesken kasuan, kirol ibilbideari baino lehentasun handiagoa ematen zaio ibilbide profesionalari, eta ez da hainbeste kontuan hartzen euren kirol esperientzia. Dena den, kirol federatuan parte hartzen duten nesken kopurua are txikiagoa da.

Kirol modalitateetan ere agerikoak izaten dira mutilen eta nesken arteko aldeak. Argi ikus daiteke neskek batez ere saskibaloia, atletismoa, futbola eta gimnastika erritmikoa egiten dutela. Eta ez dago neskarik pilotan, triatloian edo eskubaloian, eta oso-oso gutxi errugbian edo txirrindularitzan.

Horrekin lotuta, nabarmentzekoa da adin tarte horretan neska askok eta askok aukeratzen dutela lehiara bideratuta ez dagoen jarduna; batez ere, kiroldegietan eta zentro pribatuetan egiten dena. Eskaera horri erantzuteko, Musakola kiroldegia eskaintza espezifiko egin du: zunba, spinning eta aeropilates ikastaroak, 12-16 urteko gazteentzat. Parte hartzaile guztiak neskak dira.

Adin tarte horretan nabarmentzekoa den beste ezaugarri bat, hain zuzen, kirola egiteari uzten diotela da. Eskola kiroleko eskaintza amaitu ondoren (neskek, batez ere azken etapan, lotura handia izaten dute horrekin), asko eta asko kirol aukerarik gabe geratzen dira, eta kirola egiteari uzten diote. Mutilen artean ere gertatzen da hori, baina askoz ere neurri txikiagoan.

3.6.2.- Errendimendu kirola

Arrasaten 24 kirol klub daude guztira, eta horietan 23 kirol modalitate eskaintzen dituzte. Kirol erakundeek emandako datuen arabera, udalerrian 2.249 federazio lizentzia daude guztira: 1.706 gizonei dagozkie, eta 543, emakumeei. Horrenbestez, gizonetako lizentzien ehunekoa (% 75,9) emakumeena (% 23,1) baino nabarmen handiagoa da. Beraz, argi dago gizonak baino emakume gutxiago direla kirol federatua edo errendimendukoa egiten dutenak.

29. taula. Kirol klubetan emakumeen lizentzien ehunekoa

Klubaren izena	Modalitateak	Nesken %
ARRASATEKO KIROL ELKARTEA	tenisa eta padela	% 37,0
DEBAGOIENeko AMILLENA AIRE KIROL TALDEA	aire kirolak	% 0,0
ANTXINTXIKA DEBAGOIENA ARRASATEKO TRIATLOI KIROL T	triatloia	% 3,9
ARIZMENDI IKASTOLA FUTBOL KIROL ELKARTEA LEINTZ BAILARA	futbola	% 53,2
ARRASATE ATLETICO TALDEA	atletismoa	% 57,8
AMASGAS KIROL KLUBA	automobilismoa	-
BESAIDE MENDIZALE ELKARTEA	mendia	% 25,5
DEBAGOIENA TXIRRINDULARITZA KLUBA	txirrindularitza	% 1,8
DESOREKA JUDO KLUBA	judoa	% 46,0
DORDOKA	boccia	% 0,0
DORLETAKO AMA	txirrindularitza	% 1,8
ARRASATE ESKUBALOI TALDEA	eskubaloia	% 0,0
ARRASATEKO DRAGOI GIMNASIA K. T. / C.D. DE GIMNASIA DRAGOI DE ARRASATE	gimnastika erritmikoa eta aerobika	% 100,0
JUDO ARRASATE KLUBA	judoa	% 0,0
KARATE ZIORLA ARRASATE KLUBA	karatea	% 6,3
MONDRAGON FUTBOL KLUBA	futbola	% 26,2
MONDRAITZ KIROL KLUBA	mendia	-
MONDRATE KIROL KLUBA	areto futbola	% 0,0
ARRASATEKO OINTXE SASKIBALOI KIROL ELKARTEA	saskibaloia	% 36,6
A. D. ARRASATE PILOTA TALDEA	euskal pilota	% 0,0
A. D. ARRASATE ERRUGBI TALDEA OBELIX	errugbia	% 2,0
SAN ANDRES XAKE KLUBA	xakea	-
AIKIDO	aikidoa	-
DEBAGOIENeko ESKALADA	eskalada	-

Aurreko taulan ikus daitekeen bezala, gizonen eta emakumeen arteko aldeak ez dira soilik kuantitatiboak; izan ere, tradizioz gizonezkoenak diren jardunen eta tradizioz emakumeenak izan direnen arteko bereizketa gertatzen baita. Horretan zerikusia daukate gizonen zein emakumeen jardunari eta helburuei begira dauden hautemateak.

Beraz, emakumeek bereziki egiten dituzten modalitateak mendia, futbola eta judoa dira (% 73,5). Hain zuzen, emakume guztiak biltzen dira modalitate horietan, eta oso-oso urriak dira beste modalitate batzuetan ari diren emakumeak; hala nola errugbian, txirrindularitzan edo triatloian. Eta ez dago neska bakar bat ere xakean, eskubaloian edo pilotan. Beraz, nabarmentzekoa da saskibaloiko eta futboleko fitxak izan ezik, gainerako fitxa guztiak banaka lehiatu beharreko kirol jarduerenak direla. Gizonen kasuan, mendia, futbola eta saskibaloia dira aukera nagusiak. Soil-soilik kirol modalitate batean ez du gizon bakar batek ere parte hartzen: gimnastikan. Modalitate hori emakumeena da, erabat.

Talde federatuei dagokienez (talde mistoak zenbatu gabe), udalerrian 54 talde federatu daude: 45 gizonen taldeak, eta 9, emakumeenak. Horrenbestez, gizonezkoen taldeak guztizkoaren % 83,3 dira, eta emakumeenak, % 16,7. Datu garrantzitsua da, talde batean parte hartzeak irudikatzen duenagatik, eta ez soilik jardunari dagokionez, baizik eta baita bestelako balio batzuk jasotzeak irudikatzen duenagatik ere.

3.6.3.- Parte hartzean oinarritutako kirola

Parte hartzean oinarritutako kirola esaten zaio, hain zuzen, “kirolariak bere aisialdi, astialdi, estetika edo osasun premia pertsonalak asetzeko helburuarekin egiten duena, kirol eremu antolatuetan, lehiaketazkoetan, arautuetan zein ez. Horrenbestez, kirol jardun honek bizi ohitura eta filosofia osasungarri bati erantzuten dio”.

Generoa aztertzeari dagokionez, garrantzi handiko eremua da; izan ere, astialdian edo aisialdian egiten diren jarduerak osatzen dute, eta eragin handia dute egiten duten pertsonen bizi kalitatean zein osasunean.

Arrasaten, era horretako kirola egin nahi duten pertsonak aire zabalean egin dezakete (korrika, oinez...), edo Udalaren menpeko instalazioetan; batez ere, Musakola kiroldegian. Instalazio horietako harpidedunek erabilera libreko instalazioak erabil ditzakete, edo, bestela, eskainitako ikastaroren batean izena eman.

Era berean, jabetza pribatuko instalazioetan ere parte hartzean oinarritutako kirolak egiteko aukera daukate. Horiek, hain zuzen, fitnessarekin, borroka arteekin, yogarekin eta pilatesarekin zerikusia duten jarduerak eskaintzen dituzte.

3.2.2. atalean jasota dagoenez, 5.258 pertsona dira Musakola kiroldegiko harpidedunak. Horietako % 58,1 gizonak dira, eta % 41,9, emakumeak. Beraz, gizonen kopurua emakumeena baino pixka bat handiagoa da.

Dena den, eskaintzen diren ikastaro eta jardueretan izena emanda dauden pertsonen kopuruari erreparatuz gero, emakumeen eta gizonen arteko aldea nabarmen handitzen da. Hala, jardueraren batean izena emanda duten pertsonen artean % 33,6 gizonak dira, eta % 66,4, emakumeak.

Nabarmenezkoa da eskainitako jarduerak ere bereziki emakumeei zuzendutakoak direla, bai ikastaroen ezaugarriak direla tarteko (hipopresiboak, yoga, zunba, patinatzea, aquagyma...), bai jarduerak sustatzeko erabiltzen diren irudiengatik, Kirol Sailaren web orrian ikus daitekeen bezala, non batez ere emakumeak ageri diren.

Ikastaro antolatuetako parte hartzeari buruzko datuek joera bat berresten dute. Emakumeek nahiago izaten dituzte kirol jarduera antolatuak; gizonak, berriz, nahiago dute euren kasa egin jarduera.

Joera hori are nabarmenagoa da kiroldegietako tornuetan erregistratutako sarrera-irteeren kopurua aztertuz gero. Datuen arabera, urtetik urtera gorantz doa kopurua, nola gizonetan, hala emakumeetan.

30. taula. Musakola kiroldegiko sarreren erregistroa

	2014	2015	2016
Gizonak	122.243	133.764	139.304
Emakumeak	67.797	68.339	71.127
Guztira	190.040	202.103	210.431

Aurreko taulan ikus daitekeen bezala, gizonen kopurua emakumeena ia halako bi da. Horrenbestez, 2016ko datuen arabera, gizonak 139.304 aldiz sartu ziren kiroldegira; emakumeak, berriz, 71.127 aldiz. Beraz, erregistratutako 210.431 sarreretatik % 66,2 gizonenak dira, eta % 33,80, berriz, emakumeenak.

3.6.4.- Kirolaren antolamendua

Azterketa hau osatzeko, kirol klubekin feedback lana egin da. Bertan, besteak beste, galdetu zaie ea zer zailtasun dituzten emakumeak errendimendu kirolekara erakartzeko.

Alde batetik, indarrean dauden gizarte estereotipoetatik eratorritako zailtasunak daude; horien arabera, gizonetako gehiago erlazionatzen dira ukipen kirolekin, eta emakumeak, ez hainbeste. Horrekin lotuta, klub bateko arduradunak adierazi du, esaterako, “zaila” dela emakumeak borroka arteetan hastea, “kirol gogortzat jotzen delako”, eta, beraz, iruditzen zaio beharrezkoa dela aurrez onartutako era horretako ideiak aldatzeko lan egitea.

Klubek aipatzen duten beste alderdi bat, hain justu, gizonak eta emakumeak finkatzen dituzten lehentasunak dira. Horrekin lotuta, klubek diote “emakumeak berandu hasten direla errendimendu kirolean”, eta, gero, goi mailako ikasketak egiten hasten direnean, “zuzenean kluba utzi” egiten dutela. Horrenbestez, beharrezkoa da ahalduntzea sustatuko duten neurriak abian jartzea, eta emakumeen lehentasunak aldatzeko lan egitea.

Klubek parekidetasuna sustatzeko duten egitekoari dagokionez, klub gehienek baieztatu dute euren elkartean parekidetasuna sustatzeko planen bat edo gidalerroren batzuk badituztela, eta emakumeak erakartzeko kanpaina bereziak ere egiten dituztela. Nolanahi ere den, politika horiek ez dira ispiatzen klubetako parte hartzeari buruzko datuetan.

Zuzendaritza egiturei dagokienez, Udalak 17 klubi buruz emandako datuak aintzat hartuz, 12tan gizon bat da klubaren zuzendaria. Klubetako diruzaintzari dagokionez ere, antzekoak dira datuak; izan ere, 14etan gizon batek betetzen du postu hori. Datu garrantzitsua da, nahiz eta antolatzen lanetan emakume bat buru izateak ez duen bermatzen klubean genero ikuspegia txertatuko denik.

KIROL SISTEMAN dituen eraginak

- Gazteenen arteko kirol jarduna era batekoa edo bestekoa da parte hartzeari dagokionez, emakume gehiagok uzten diote kirola egiteari, eta bereizketa horizontalak markatutakoa da.
- Aisialdian kirol jardunaren maila handiagoa da gizonen kasuan, eta ez dago hain bideratua ikastaro antolatuetara; beraz, pentsa genezake emakumeek baino gehiago egiten dutela gizonen kirola gozatzeko.
- Gizonen lizentzia federatuen kopurua emakumeena baino dezente handiagoa da. Emakumeek gehiago egiten dituzte emakumeenak diren kirol modalitateak.
- Klubak aburuz, beharrezkoa da emakumeen ahalduntzean eta gizonen eta emakumeen kirol jardunaren inguruan dauden estereotipoetan lanean jarraitzea.
- Klubak oso gizonekotuta daude, oraindik ere, euren egituretan.

3.7. 7. aztergaia. Kirola eta euskara

Hizkuntza bat (gure kasuan, euskara) sustatzeko oso modu eraginkorra da kirola; izan ere, herritarren aisialdiko jarduera nagusietako bat da, batez ere, haurrengan eta gazteengan. Horregatik, Udaleko Euskararen Plan Estrategikoan bada atal berezi bat, non helburutzat jotzen den kirol arloko jardueretan euskararen erabilera sustatzea eta euskarari tokia egitea. Era berean, arlo jakin horretan sentsibilizazioa handitzeko premia aurreikusten da. Horrekin lotuta, Udalak kirol jarduerari buruz argitaratutako edukiak bi hizkuntzatan joaten dira: euskara doa lehenengo tokian, kiroldegiko ikastaroak iragartzeko liburuxkan ikus daitekeen bezala. (Eranskina).

Gazteenei zuzendutako eskaintzari dagokionez, nabarmentzekoa da Kirola Euskaraz programa. 1993an sortu zuten Debagoieneko udalek. Gerora Gipuzkoa osora zabaldu den programa honek hiru zutabe ditu: kirol materiala euskaraz egitea; entrenatzaileen, begiraleen eta irakasleen prestakuntza sustatzea; eta sentsibilizazioa.

Azken hiru urteetan, haurren lehiaketetan liburuxkak egin eta banatu dira entrenatzaileen, gurasoen eta ikus-entzuleen artean. Liburuxka horiek “Eskola kirolean denok euskaraz bidelagun” idazpurua eta kirolari zein euskarari buruzko aholkuak biltzen dituzte, “semaforoaren sistema” baliatuz. Nahiz eta programa arrakastatsua den (indarrean daramatzan urteak kontuan hartuta), ez dago bere eragina berresten duen daturik.

Hala, euskararen erabilerari buruz Arrasaten egindako azken azterlanetako bat “Hizkuntza Erabileraren kale neurketa” izan da. Txosten horrek, hain zuzen, Arrasateko hainbat gunetan erregistratzen diren elkarrizketetako euskararen erabilera neurtzen du bost urtean behin. Eta txostenak jasotzen duenez, erregistratutako elkarrizketen % 27,4 euskaraz egin ziren; % 69,2, gaztelaniaz; eta gainerakoa, beste hizkuntza batzuetan. Nabarmentzekoa da aztertutako emakume guztien % 30,3k hitz egiten zutela euskaraz. Gizonezkoen kasuan, ehunekoak behera egiten du: % 24,3. Baina generoa baino adierazle garrantzitsuagoa da adina.

Datu horiek mahai gainean jarrita, kirolaren arloko euskararen erabilerari buruzko azterketa honek hizkuntzaren egoeraren berri eman nahi du; bereziki, kirol klubei dagokienez.

3.7.1.- Klubetako zuzendaritzak

Klubek atal honetan egindako datu bilketan nabarmentzekoa da zuzendaritza osatzen duten pertsona asko eta asko euskaldunak direla (analisi honetan, euskalduntzat joko da euskaraz, ahoz zein idatziz, adierazteko gai den pertsona oro). Kasu guztietan % 50etik gorako datuak ditugu; gehientsuenak % 90en bueltakoak; eta batzu-batzuk % 100era ere iristen direla. Are gehiago, sarbidea izan dugun klubetan, lehendakaria euskalduna zen. Nola klub txikiak diren eta nola ia gehienetan ez dagoen langile talderik, lehendakaria euskaraz hitz egiteko gai izateak asko errazten du lehenengo arreta euskaraz eskaintzea, baldin eta bazkideek hala eskatzen badute.

Aipatu dugun moduan, klub gehienek ez dute langile talderik, baina badutenetan, lehentasuna ematen zaio euskaldunak izateari, era horretan asko errazten baita kluba osatzen duten pertsonekiko komunikazioa.

3.7.2.- Plan espezifikoak

Klub gehienek ez dute planik, erakundean euskararen erabilera arautuko duenik. Bik baino ez dute. Halere, klub guztietan da euskara kontuan hartzeko ezaugarria.

3.7.3.- Klubaren funtzionamendua

Kluben funtzionamenduari dagokionez, nabarmentzekoa da soilik klub batek egiten dituela entrenamenduak eta bilerak euskara hutsean. Gehienek bi hizkuntza ofizialetan egiten dute, nahiz eta horien artean badauden euren jarduera batez ere gaztelaniaz egiten dutenak. Horrekin lotuta, interesgarria da udalerrian prestakuntza eskaintza izatea, euskaraz, entrenatzaileentzat eta gainerako kirol langileentzat. Gorputz eta kirol ekintzen animaziorako Prestakuntza Profesionalaren zikloaren helburua da, hain zuzen, haurrentzako, gazteentzako zein helduentzako kirol jarduera fisikoak sustatuz lan egin nahi duten, prestakuntza fisikoaren edo fitnessaren arloan aritu nahi duten, edo begirale edo entrenatzaile izateko prestakuntza espezifikoa jaso nahi duten pertsonak trebatzea: taldeko kirola, tenisa, igeriketa, patinatzea, haurren psikomotrizitatearen garapena, eskalada, aerobika, tonifikazioa, pilatesa... Aipatutako ziklo hori euskaraz eskaintzen da, eta ziur asko horrek eragina izango du hizkuntza ezagutzen duten langile gaituak kontratatzean. Horrekin lotuta, nabarmentzekoa da eskola kirolerako langileak kontratatzean ezinbesteko baldintzetako bat dela euskaraz jakitea. Kluben kasuan, berriz, boluntarioran oinarritzen da gehiago funtzionamendua, eta, horrenbestez, baldintzak ez dira hain zorrotzak.

Klubek federazioekin eta babesleekin dituzten harremanetan, ia kasu guztietan, bi hizkuntza ofizialak erabiltzen dira. Izan ere, hizkuntza jakiteak ez du bermatzen hitz egingo denik; azken batean, hizkuntza gaitasuna eta solaskideen ohiturak erabakigarriak izaten dira.

3.7.4.- Klubaren kanpo hedadura

Kluben kanpo hedadurari dagokionez, karteletan, liburuxketan, prentsa iragarkietan, web orrietan eta sare sozialetan euskarari ematen zaion erabilera aztertu da. Ia klub gehienek iragartzen dituzte euren jarduerak bi hizkuntza ofizialak baliatuz, nahiz eta federazioekin

egiten dituzten bileretan edo izaten dituzten harremanetan gertatzen den bezala, klub batzuek euren edukiak batez ere gaztelaniaz eskaintzen dituzten, eta beste batzuek, bereziki euskaraz.

Web orrien azterketan nabarmentzekoak dira hainbat kasu. Web orri batean, esaterako, edukiak euskaraz adierazteko prestatua egonagatik (idazpuruak euskaraz daude idatzita), gero, barnean, azalpen guztiak gaztelania hutsean daude. Halere, nabarmentzekoa da euren web orriko edukiak bi hizkuntzatan dituzten klubek lehentasuna ematen diotela euskarari.

KIROL SISTEMAN dituen eraginak

- Euskara sustatzeko politikek ezarpen handia dute; batez ere, eskola kirolari dagokionez.
- Euskararen erabileraren inguruko sentsibilizazio programen arrakasta aztertzean, kontrol mekanismoak falta dira.
- Beharrezkoa da hizkuntzaren erabilerarekin lotuta dauden ohiturak gainditzea, euskaraz badakiten eta egiten duten solaskideak gaztelaniaz komunikatzera daramatzatenak.

4. KIROL SEKTOREAREN BILAKAERA ETA ETORKIZUNeko JOERAK

Gaur egun, jarduera fisikoak eta kirolak egiteko garrantzitsua dute gizartean; besteak beste, ekonomia, enplegarritasuna, hirigintza eta pareko ardatzak txertatzen baititu bere plangintzan. Kirolaren fenomenoak eskuratzen ari den pluraltasuna dela tarteko, kirol eragileek hainbat rol berenganatu, ohiko kirol espazioak egokitu, kirolerakoak ez diren espazioak erabili, eta dauden eskaera eta premia berriak asetzeko irtenbideak bilatu behar izan dituzte. Eta hori guztia gertatu da, hain zuzen, azken urteotan kirolaren industriak guztizko industriak baino bilakaera positiboagoa izan duenean, sektore dinamikoa eta etengabe egokitze fasean dagoena izanez.

Kirolaren ikusmolde aldaketa hori bultzatu duen gertakarietako bat izan da, besteak beste, kalearen kiroltzeara. Horrek agerian utzi du espazio itxi eta arautuetan finkatzeari utzi, eta aire zabaleko jardunari atek irekitzeko dagoen premia. Horrenbestez, jarduna geroz eta dibertsifikatuagoa dago, etengabe azaltzen baitira jarduera askotarikoak, ezohikoak eta astialdikoak. Kirol jardun horren bilakaera konplexuagoa bihurtu da, eta kirol espazioen eskaera askotarikoagoa, hartzaile mota bakoitzari egokitutakoa eta udalerrientzat balioaniztuna egiten da.

Herritarrentzat jardunerako espazio berriek gaur egun duten garrantzia ezagututa, tokiko administrazioak ahalegindu behar du kirol jarduera fisikoa egokitzen eta espazio horietara bideratzen, espazioak hobetuz eta euren erabilerarako beharrezkoak diren elementuekin hornituz. Geroz eta kirol zentro gehiagok antolatzen dituzte kirol jarduerak aire zabalean, euren ohiko espazioetatik kanpo, kirol horiek duten ahalmen handiaz jabetu baitira. Sektore pribatua ere kirolarekin batera ari da bilakatzen, eta ikuspegi berria hartu du, bere zerbitzuak ahalik eta gehien egokituz gizartearen eskaeretara. Hala, bizi ohitura osasungarriak sustatzen espezializatuta dauden zentroeire ere mesede egin die kirola eraldatu izanak.

Kirol federatua ere ez da atzean geratu; izan ere, horixe da 'ireki' den azken azpisisistema, aldaketetara eta gizarte testuinguru berrira egokituz, eta lehia federatutik harago, jarduera berriak eskainiz. Kirol erakundeek ere gaur egungo testuingurura egokitu behar izan dute, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak eta Zerga Administrazioako Estatu Agentziak sustatutako araudi berriei aurre eginez eta kirol klubetako langileen kontratuak arautuz.

Ikus daitekeen bezala, gaur egun kirola azkar batean ari da eraldatzen, eta aldaketak bata bestearen atzetik datoz. Bilakaera horrek zerikusia dauka, halaber, teknologiarekin. Izan ere, teknologiak badarama denboratxo bat kirolaren hainbat arlo eraldatzen; batez ere, errendimendu handiko kirolarena. Gaur egungo aldaketa, baina, askoz ere sakonagoa da, gizartearen paradigma aldaketaren eraginezkoa baita. Interneterako sarbidea duten sakelako telefonoek ere eragin dute gizartearen portaera aldatzea. Gizarte eta kultura aldaketa horrek eragina dauka gizartearen arlo guztietan. Kirolak, ordea, bide luzea du egiteko, dauzkan jarraitzaile ugariari eta aplikazio posibleei esker.

Dena den, ezin dugu ahaztu teknologia berrien erabilera egokia sustatu dela, eta horien erabilerak dakarrenari buruzko sentsibilizazioa eskaini zaiela eta horretan hezi direla nola txikiak, hala helduagoak.

Biztanleria kolektibo espezifikoetan, jarduera fisikoa elementu integratzaile eta bideratzaile gisa ageri da, gizarteko gainerako guztiekiko konexioak sortzen dituena. Jarduera fisikoa egitea, beraz, osasun fisikoa, psikologikoa eta soziala hobetzeko tresna bihurtzen da, erabateko ongizatea lortzeko asmoz. Ezin dugu ahaztu eskola kirola, zeina funtsezkoa den ohitura osasungarriak eskuratzeko, eta bidenabar, oinarri-oinarrizkoa hezkuntza prozesurako.

Eskola kirolaren kasuan, etorkizunean aintzat hartu beharreko hainbat arazo hauteman dira; esaterako, nerabezaroan kirola egiteari uztearena, araudi federatiboan oinarritutako kirol eskolaren ereduak, emakumeen artean dagoen jardun maila txikiagoa, eta arrakastaren zein lehiakortasunaren gehiegizko garrantzia. Gai errealak dira, kirol fenomenoaren bilakaeraren eraginez agertu direnak. Horiek, gainera, kirolaren ikusmolde berriak dakartzate, ikuspegi berriak erakusten dituzte eta jarduera fisikoaren eta kirolaren etorkizuneko egoerak agerian uzten dituzte.

Azken urteotan askotarikoak izan dira nagusi bihurtu diren eta kirol jarduera fisikoaren sektorean egonkortu diren joerak.


43. irudia. Gaur egun, kirol jarduera fisikotik azaleratzen diren joerak



Iturria: Geuk egina (2017).

Jarduera fisikoaren eta kirolaren munduan gertatzen ari diren joeren inguruan gaur egun daukagun egoerari erreparatuta, gogoetari ekiteko garaia da. Gogoeta hori, hain zuzen, kirol fenomenoaren bilakaera eta gaur egungo egoera dela eta ez dela egiten da. Hala, kirola eraldatzeko unean, gertakari sorta bat izan dira, gaur egungo egoera ekarri dutenak. Horren eraginez, ezinbestekoa da jarduera fisikoa eta kirola gizarte osora egokitzea, eta guztion eskuragarri jartzea. Askotarikotasunari arreta jartzeko dagoen premia funtsezko oinarria da, baldin eta gizarteko kolektibo guztiei bermatu nahi bazaie jarduera fisikorako eta kirolerako irisgarritasuna.

44. irudia. Kirolaren eraldaketari buruzko gogoetak




Iturria: Geuk egina (2017).

Biztanleriako kolektibo guztien ezaugarrietara eta espezifikotasunetara egokitzeko moduko kirol programak eta ekintzak sortzea da asmoa. Jarduera fisikoaren eta kirolaren bilakaera hori konstantea izango da denboran, eta, horrenbestez, geroz eta gehiago erreparatu beharko zaio biztanleria askotarikotasunari, eta beharrezkoa izango da zerbitzu egokituagoak eskaintzea. Etorkizuneko gizarteak, berezkoa izango duten izaeragatik, bilakatuz joango dira, eta paradigma berriak, kirol fenomenoaren ikuspegiak eta joera berritzaileak sortuko dituzte, urteek aurrera egin ahala.

Kirolaren sektoreak etengabe izaten duen eraldaketak diziplina anitzeko fenomeno bihurtu du kirola bera: aberatsa eta bizia, hainbat arlotako inputak eskuratzeari eta hazteari uzten ez diona.

Eraldaketa hori ispilatuta ageri da irudi honetan. Joera berriak daude jasota, oinarrizko 8 zutabetan banatuta. Item horiek gaur egun azaleratu direnak dira, eta geroz eta indar handiagoa hartzen ari direnak. Jarduera fisikoaren eta kirolaren ikuspegi berri hau sustatzen ari dira, aisialdian eta osasunean oinarritutakoa, eta ez hainbeste lehiaketazko kirol federatuan.

45. irudia. Kirol fenomenoaren aldaketa prozesuak



Iturria: Geuk egina (2017).

Jarduera fisikoa eta kirola gehiago hurbiltzen dira aisialdi eta osasun eredu batera, eta etorkizun balioaniztun, dinamiko eta gizartean eragin handikora begira daude. Kirol produktuaren indibidualizazioa eta kolektibo zein hartzaile guztietara egokitzea giltzarria izango da arrakasta lortzeko eta kirol jarduna biztanleria ugariaren artean gizarteratzeko (orain arte aritzen ez zirenak barne).

Atal honetan, gaur egun jarduera fisikoaren eta kirolaren jardunean azaleratzen ari diren eta bidean dauden joerak ezagutu ahal izan ditugu. Gaur egungo joeren argazki hau egitearen helburua izan da, besteak beste, jarduera fisikoa eta kirola norantz doazen erakustea, eta joera horren eta Arrasaten gaur egun kirolaren inguruan dagoen egoeraren arteko loturak sortzea.

Kirolak biztanle guztiak hornitu behar ditu; izan ere, ezinezkoa da gaur egungo gizartean finkatuta dauden joerei bizkarra ematea. Kirolean errespetuaren ikusmoldea eraldatzen saiatzeko ahaleginak batu behar dira. Aukeratik premiara, aukera pertsonaletik gizarte betebeharrera, bakoitzaren kontu izatetik arlo ugari (osasuna, hezkuntza, ekonomia, kultura, turismoa, hirigintza, eskualdea, nazioko harremanak zein nazioarteko harremanak) eragiten dien kontu izatera igarotzea lortu behar dugu.

Honako irudi honek aipatutako joeren laburpena egiten du, udalerrian modu argian hauteman direnak identifikatuz; izan herritarrek, izan Udalaren kirol politikek. Joera horiek kirol sektorean gertatzen ari denaren laburpen bat dira; baina horrek ez du esan nahi guztiak gertatu behar direnik, inguruneak bultzatzen baitu batzuk besteen gainetik agertzea.

46. irudia. Hiriko kirol jarduera fisikoa azaleratzen ari diren joerak.

Jarduera fisikoaren eta kirolaren sektoreko joerak	Herritarrek
Kalea kiroltzea: askotariko espazio balioaniztunen eskaerak.	✓
Helduaroan kirol jardunaren indibidualizazioa. Nork bere burua gainditzeko motibazioa. Emakumeen jardunaren gorakada.	✓
Honako hauen igoera eta egonkortzea: bizimodu osasungarria / gorputza-burua oreka / intentsitate handia eta muturreko kirola.	✓
Kirol zentro espezializatuagoak, eta, era berean, zeharkako zerbitzuen eskaintza, bizimodu osasungarrietara bideratutakoak.	✓
Kirol zerbitzu berriak aire zabalean edo/eta urrutikoak, eta pertsonalizazio maila handikoak.	✓
Kalitatezko kirol zerbitzuen eskaera, baina kuota zerbitzura egokituz.	✓
Elkarte ehunaren eraldaketa profesionalizazio handiagorantz, lege eskaerekin eta merkaturakoekin bat etorrira.	✓
Publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak moduak ugaltzea eta berriak bilatzea.	✓
Kirola turismoa erakartzeko erabiltzea, bai eta merkataritza eta lan arloa dinamizatzeko elementu gisa ere.	
Kirolaren bizipenaren eta haren eskaintza zein antolamenduaren eraldaketa, teknologia berrien bidez.	

Iturria: Geuk egina (2017).

5. DIAGNOSIA

Egindako azterketa handiaren ostean, non Arrasateko kirol sisteman eragin handia duten elementuak nabarmendu ditugun, diagnostikoa egingo dugu. Bertan, nabarmendutako elementuak kontuan izanik, azterlan bakoitzeko ezaugarri positiboak eta hobekuntzazkoak ageri dira laburbilduta, eta, amaieran, laburpenezko gogoeta bat. Gogoeta hori izango da, hain justu, proposamenen faserako abiapuntua. Bertan, problemen zuhaitzaren metodologiaren bitartez, diagnosia osatuko da, azterlan bakoitzerako estrategiak zehaztuz.

1. aztergaia. Kirolaren antolamendua

Alderdi positiboak

- Kirol eragile ugari, hirian kirola antolatzeko eta sustatzeko.
- Turismo aktiboa edo naturakoa sustatzeko lehenengo urratsak.
- % 43ko autofinantzaketa maila, denontzako kirolaren diru sarrerei esker.
- Hainbat eragile, eskola kirolaren sustatzaile.
- Kirolaren sektorearen eraldaketa, elkarre publiko zein pribatuaren arteko lankidetzarekin. Sinergien ahalmena.
- Kirolaren arloan erreferenteak diren prestakuntza zentroak.

Landu beharreko alderdiak

- Sektorearen etengabeko eraldaketa eta eskaera berriak, eskaintza etengabe egokitzea eskatzen dutenak.
- Baliabide ekonomiko mugatuak, eta kirol instalazioen funtzionamendu eta mantentze lanen pisu handia.
- Eskola kirolean eragileek dituzten askotariko interesak. Multikirola vs espezializazioa.
- Kirol erakundearen profesionalizazio handiagorako arau eskakizunei aurre egiteko zailtasunak.

Kirolaren sektorearen eraldaketak ezinbestean eskatzen du tokiko kirol sistemako eragileak egokitzea

2. aztergaia. Kirola, osasuna eta hezkuntza**Alderdi positiboak**

- Nesken eskolako jarduna, nahiko orekatua. Aldeak, eragileen arabera; eta eskolako etaparen arabera, kopurua beherantz.
- Hiri ingurunean eta ingurune naturalean egiten den kirol jardueraren gorakada.
- Parte hartze handia eskola kirolean, nesken parte hartzea nabarmentzen dela.
- Gazteentzako federatua ez den kirol eskaintza sortzeko lehenengo ekimenak.
- Udalaren kirol instalazioen aukera zabala, eta kirola egiteko eskaintza guztiontzat.
- Udalaren kirol programa aktiboak, eskaeren arabera etengabe eraldatzen ari direnak; eta eskaintza pribatu espezializatua.

Landu beharreko alderdiak

- Adinekoentzako eskaintza bat egiteko premia, kolektibo horren kirol joera berrietara egokitutakoa.
- Kolektibo guztiontzat irisgarriak eta tipologia ugaritakoak izango diren kirol programak lantzeko premia. Eskaera berriak, eta sektorearen etengabeko eraldaketa.
- Adinean aurrera egin ahala, eskola kirola egiten dutenen kopurua murritztea (bereziki neskak), batez ere klubetan. Kluben eskaintza, lehiaketara bideratua.
- Eskola kirolean eragileek dituzten askotariko interesak. Multikirola vs espezializazioa.
- Udalaren kirol zerbitzuetako harpidedun gehiago gizonak emakumeak baino.
- Udalerritik kanpoko eskumenaren gorakada.

Udalak denontzako kirolaren alde egindako apustua: ezinbestekoa da bizi etapa guztietarako kirola sustatzea

3. aztergaia. Herritarren premiak eta herriko kirol espazioak**Alderdi positiboak**

- Udalaren kirol instalazioen aukera zabala, eta denontzako kirolerako eskaintza.
- Ez da aurreikusten biztanleriaren hazkunde nabarmenik; beraz, kirol espazioetako eskaera berriak ez dira zabalkuntzakoak izango, baizik eta kirol instalazioak hobetzekoak.
- Kirola egiteko ingurune natural bikaina, askotariko ibilbideekin, eta egokia mendi ibiliak egiteko.
- Jolastoki irekiak, hurbileko kirol espazio gisa.
- Eskaintza espezifikoak duten kirol zentro pribatu ugari, Udalaren eskaintza osatzen dutenak.
- Ikasleek Udalaren instalazioak aprobetxatzea, goizeko ordutegian.

Landu beharreko alderdiak

- Hirugarren adinekoentzako hurbileko espazio espezifikoak eta irisgarriak edukitzeko premia, bereziki erabilera librekoak.
- Kirol instalazio zaharkituak; instalazio batzuek egiturazko arazoak dituzte.
- Ohiko kirol instalazioen mantentze eta funtzionamendu kostu handia.
- Udalerritik kanpoko eskumenaren gorakada.
- Ingurune naturalean eta hiri ingurunean aplikazio teknologiko txikiko instalazioen eta espazioen eskaintza.
- Hiri aktiboa izateko hirigintza hobekuntzak egiteko premia (hainbat adineko pertsonentzako kirol parkeak, bidegorriak eta oinezkoentzako bideak, besteak beste).

Kirol espazioen askotarikotasuna eta Arrasateko ingurune naturalak kirola egiteko gune gisa duen ahalmen handia

4. aztergaia. Kirol ekitaldiak eta kirol turismoaren ahalmena

Alderdi positiboak

- Aldian behingo ekitaldi kopuruaren gorakada.
- Kirol ekitaldiak askotariko eragileek antolatzen dituzte: publikoek, kirol erakundeek eta enpresa pribatuek.
- Ekitaldien eskaintza ugaltzeko joera, adin guztietako pertsonentzako jardurekin, eta, batez ere, ingurune naturalean.
- Lurraldean ekonomia sortzeko eta kirol turismoa sustatzeko ahalmena.

Landu beharreko alderdiak

- Eskaintza handitzeak berarekin dakar ekitaldien saturazioa.
- Garrantzitsua da kirol ekitaldiek lurraldean duten helburuari eta horien kudeaketari buruzko estrategia bati buruzko gogoeta egitea eta estrategia bat edukitzea.
- Udalerrian kirol ekitaldiak antolatzeko prozesuetarako eta erabilera baimenetarako protokolo argi bat sortzeko premia.

Kirol ekitaldien ahalmena, turismoaren sustatzaile handi eta eragin ekonomikoaren sortzaile gisa

5. aztergaia. Gizarte irisgarritasuna

Alderdi positiboak

- Kirol instalazioetara sartzeko modu ugari, arrazoizko prezioan.
- Krisialdi ekonomikoaren testuingurutik eratorritako kirol jardunerako laguntza kopuruaren gorakada.
- Laguntzen zuzeneko kudeaketa, kirol zerbitzutik bertatik.
- Adineko pertsonentzako kirol programak.

Landu beharreko alderdiak

- Instalazioetarako sarbide sistemari buruzko iritzi ugari. Berriz definitu beharra ote dagoen aztertu behar da.
- Adinekoentzako eskaintza bat sustatzea, kolektibo horren kirol joera berrietara egokitutakoa.
- Lurraldeko hainbat kolektiborentzako hiriko kirol espazio irisgarrien kopuru txikia.

Kirolerako irisgarritasuna bermatzeko laguntzen kudeaketa, arlo horretan definitutako estrategiarik gabe

6. aztergaia. Kirola eta emakumea

Alderdi positiboak

- Eskola garaian neskek egiten duten kirol jardun handia, batez bestekoarekin alderatuta, baina mutilena baino txikiagoa, halere.
- Emakumeak ahalduzko lan egiteko dagoen premiari buruzko kontzientzia orokorra.

Landu beharreko alderdiak

- Emakumeen premietara egokitutako eskaintzetan lan egin behar da.
- Kirol klubetako zuzendaritza eta antolamendu egitura batez ere maskulinoak.

Emakumeek kirolean duten tokia txikiagoa da, nola jardunari dagokionez, hala antolamenduari dagokionez

7. aztergaia. Kirola eta euskara

Alderdi positiboak

- Eskola kirolean euskara sustatzeko politiken ezarpen maila handia.
- Kluben barne komunikazioan euskararen eta gaztelaniaren erabilera.

Hobetu beharreko alderdiak

- Euskararen erabilerari buruzko sentsibilizazioan oinarritutako kirol programen arrakasta aztertzeko kontrol mekanismoak falta dira.
- Kirol klubek kanpo komunikaziorako eta sustapenerako euskararen erabilera txikia dute.

Euskarak badu tokia Arrasateko kirolean, nola egunerokotasunean, hala antolamendu egituran

47. irudia. Diagnosiaren laburpena, aztergaien arabera.

Kirolaren antolamendua	"Kirolaren sektorearen eraldaketak ezinbestean eskatzen du tokiko kirol sistemako eragileak egokitzea"
Kirola, osasuna eta hezkuntza	"Udalak denontzako kirolaren alde egindako apustua: ezinbestekoa da bizi etapa guztietarako kirola sustatzea"
Herritarren premiak eta herriko kirol espazioak	"Kirol espazioen askotarikotasuna eta Arrasateko ingurune naturalak kirola egiteko gune gisa duen ahalmen handia"
Kirol ekitaldiak eta kirol turismoaren ahalmena	"Kirol ekitaldien ahalmena, turismoaren sustatzaile handi eta eragin ekonomikoaren sortzaile gisa" "Gaur egun, ez du tokirik udalerriko turismo eta ekonomia estrategian"
Gizarte irisgarritasuna	"Kirolerako irisgarritasuna bermatzeko laguntzen kudeaketa, arlo horretan definitutako estrategiarik gabe"
Kirola eta emakumea	"Emakumeek kirolean duten tokia txikiagoa da, nola jardunari dagokionez, hala antolamenduari dagokionez"
Kirola eta euskara	"Euskarak badu tokia Arrasateko kirolean, nola egunerokotasunean, hala antolamendu egituran"



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

